


# ek!

**eta kitto!**  
euskara elkarte

2026ko martxoak 27 · 1390 zenbakia

# EUSKARA GARA



# URRATEGI

INTERIORISMO  
barne diseinua

dena  
sukaldean  
hasten da

[www.urrategiinteriorismo.com](http://www.urrategiinteriorismo.com) • Azpeitia Arretxe 9 Eibar Aragoitza 27



# MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKA  
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA, KOOP. E.

## “DUALak ikasgelan eskuratutako ezagutza batzuetan sakontzeko aukera eman dit”



Lucas Da Silva Morerira

Sareko Informatika Sistemen Administrazioiko (ASIR)  
Goi Mailako Heziketa Zikloa

### Sareko Informatika Sistemen Administrazioiko goi-mailako zikloa ikasten ari zara. Zergatik aukeratu zenuen ziklo hau?

Goi mailako ziklo hau egin aurretik, informatikarekin lotutako erdi mailako ziklo bat ikasi nuen Arizmendin. Ziklo hau egiten ari nintzela Erasmus programan izena eman ahal izan nuen eta praktikak Lisboan egiteko aukera izan nuen. Oso esperientzia ona izan zen, eta informatikarekin lotutako gaiak gustatzen zitzaizkidalda ikusten nuen, MGEPera etortzea erabaki nuen, goi-mailako ziklo bat egitera.

### Zer iruditua zaizu zikloa? Nolako izan da esperientzia?

Zikloari ekin nionean, argi neukan ikasgai batzuk errazagoak egingo zitzaizkidalda, erdi mailako zikloan ikasiak bainituen. Beste ikasgai batzuk guztiz berriak ziren, errespetu handiagoa ematen zidaten. Zikloan zehar, irakasleekin izan dudana harremana oso ona izan da, etengabe lan egin dut, eta kalifikazio onak lortu ahal izan ditut.

Esperientzia oso positiboa izan da, etorkizunari begira asko balio izan didala uste dut.

### Ikasketak formatu DUAL intentsiboan egin dituzu. Zer nabarmenduko zenuke alderdi horretatik?

Bai, DUAL programak Kiro Grifols enpresan lan egiteko aukera eman dit. Hasi nintzenean, 2025eko ekainean, enpresarekin zerikusia zuten gauza berri asko ikasi behar izan nituen, eta exigentzia handiko garaia izan zen. Industria-ingurunearekin ohitu naizenean, dena errazagoa izan da. Esperientzia honen gauzarik positiboena egindako lanari esker ikasgelan era orokorragoan ikusi genituen alderdi batzuetan sakontu ahal izan dudala izan da. Gai batzuetan espezializatu naiz eta hau oso positiboa eta aberasgarria izan da. Bestalde, DUAL intentsiboari esker soldata bat jaso ahal izan dut, eta uste dut hori oso garrantzitsua dela gazteek autonomia handiagoa izan dezaten.

### Ikasketak eta lana uztartzea kosta egin al zaizu?

Egia esan, ez. Goizez etortzen naiz Eskolara, eta, ondoren, beste 3 orduz aritzen naiz lanean arratsalde. Ikasgelan adi egoten saiatzen naiz eta ikasgaiak egunean eramaten. Horrela, nire lanean zentratu naiteke enpresara joaten naizenean eta emaitza akademikoak ere oso onak izan dira.

### Zer asmo duzu etorkizunerako?

Oraindik ez daukat argi, bi aukera aztertzen ari naiz. Alde batetik, IT zibersegurtasunean espezializatzeko ikastaro bat egitea gustatuko litzaideke. Bestalde, atzerrian lan egiteko bekak eskaintzen dituen “Global Training” programa batean ere parte hartu nahi nuke.

## ATE IREKIAK

Maiatzak 9

11:00etan

Eman izena!

MGEP:  
664 298 683



Neinor HOMES

EIBAR

# ARRATE HOMES ERREALITATEA DA



2 eta 3 logelako  
etxebizitzak

Bisitatu pisu pilotua  
eta estreinatu etxebizitza  
hilabete honetan bertan

Gourmet aretoa | Gimnasioa

APARKALEKUAK  
ESKURAGARRI

900 11 00 22 • [neinorhomes.com](http://neinorhomes.com)

# Jarrai iezaguzu!

BIDEOAK YouTubean ikusgai



[www.etakitto.eus](http://www.etakitto.eus)



Zain egon behar izan gara,  
baina iritsi zaigu korrika egiteko  
eguna. Bihar helduko da Korrika  
Eibarrera eta gure sare sozialen  
bitartez jarraitu ahal izango  
dituzue egun osoan zehar egingo  
diren ekintzak.



**eta kitto!**  
euskara elkarteak



## ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkartea

## HELBIDEA

Urkizu, 11 - 20600 Eibar

## TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

## ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

aldizkaria@etakitto.eus

## ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

## ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Naia Aizpurua,

Irati Alvarez, Ekhi Belar, Ander

Fernandez, Silbia Hernandez,

Iruñe Jaio, Yanire Sagredo,

Oihane Zabala

## ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

## KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

## ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

## DISEINU ARLOA

Iruñe Jaio

## JATORRIZKO DISEINUA

Maku Oruezabal

## HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

## PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

## TELEFONOAK

943 20 67 76

## AZALA

Iruñe Jaio

## BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

## TIRADA

7.800 ale

## INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

## COPYRIGHT-A

...eta kitto!

## LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain  
hartzen aldizkarian adierazitako  
esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta  
Gipuzkoako Foru Aldundiak  
lagundutako aldizkaria



# Eskutitzak



## Nazkatuta gaude

Egunak dira irratian, telebistan, egunkarian... Eibarko haur-eskolen arazoa bolo-bolo dabilenetik. Familion ezinegona agerian gelditu zen baina, gure sorpresarako ez behintzat, egoerak puntu berean jarraitzen du. Egia esan puntu berean ere ez, izan ere, orain haur-eskolen eta familien arazoa horrela dago: Hezkuntza Saila eta Eibarko Udalaren arteko tenis partida bat bihurtu da, arazoaren ardura alde batetik bestera pasa eta puntua ea nork eramango duen tirabiran. Bitartean, gure haurrak erdian, epaile lanetan, esango digutenaren zain. Aurrez komunikabideetan salatu genuen herriko agintarien utzikeria prozesu luze bezain antzu honetan eta, horrek ere, gure zoritxarrerako, bere horretan dirau. Auzi honen kudeaketa penagarria ikusita, Eibarko herritar bezala, gure buruari ezinbestean galdetzen diogu ea gure udal txean, gure herritarren interesak eta beharrak defendatzeko benetako borondatea duen politikaririk ote dagoen; halaxe balitz, irtenbide bat aspaldi izango genukeen. Mezu hau, politikari horiei zuzentzen diegu: utzi zuen harrotasuna alde batera eta egizue zerbait haur eta herritarrentzat. Sare sozialetako bideo gutxiago eta errealtatezko ekintza gehiago nahi ditugu; herriko haurrek eta familiok ez dugu jasotzen ari garen tratua iraingarri hau merezi. Pazientzia aspaldi amaitu zitzaigun, aski da!

**Nazkatuta dauden 0-2 urteko haurren gurasoak**

## Datorren astean ez da alerik izango

Aste Santuko jaiak direla-eta, apirilaren 3an ez duzue alerik izango zuen buzoietan. Hurrengo alea apirilaren 10ean izango da.

**Erredakzioa**

# Hortik esanak



Zaila da herri oso baten izenean hitz egitea. Baina esango nuke kubatar herriak oso argi duela historikoki zer defendatu duen, eta azkenaldian berpiztu egin dela kubatarren kontzientzia ondo itsatsita egon den sentimendu patriotikoa eta inperialismoaren kontrakoa. Herritarrek ikusi dute nork eragin dituen zailtasunak: kanpoko etsai batek, Kubako iraultzaren, sozialismoaren eta justizia sozialaren etsai historikoak. Kubako herritarrek ez dira makurtuko, edozein baliabide natural baino baliotsuagoa den zerbait dute eta: duintasuna.

**MARXLENIN PEREZ VALDÉS, filosofia irakaslea**

Euskararen erabilera gutxitzen ari den honetan, guztiz kaltegarria ikusten dugu telebistaren leihoa galtzea. Ondorio kaltegarriak izango ditu euskararentzat. Haurren %70ak telebista konbentzionala ikusten du eta marrazki bizidunak gehien ikusten diren ordu tartean, arratsaldetan, ez dituzte eduki horiek telebistan ikusgai izango. Horrela, gaztelaniazko marrazkiak ikustera bultzatuko ditugu.

**ALEX AGINAGALDE, Pantailak Euskaraz**

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**POLIKI-POLIKI** → Apurka, polito. “Poliki-poliki Azitain alderutz hurreratu zanian, konturatu zan bestia ez zala agiri”.

Jatekoak irakitean ateratzen duen hotsa. “Patatak pol-pol dagoz eta laster sua amatau”.

**POLITTO**. → Itxura politzez. “Politto atara dau egin destan soiñekua”.

Lasai, astiro, prisa barik. “Politxo-politxo jua ziran kontuan jausten eibartarrak buztanik ez eukela”.

Kontuz. “Hórrek torloju txikixok politto ibilli, jausi eta galtzeko arrisku haundixa dake eta”.

1951

Emakumeentzat espazioak sortzen aitzindari

Urte horretan sortu zuten Goi Argi elkarte, martxoaren 19an, helburu argi batekin: emakumeak elkartzeko espazio bat izatea, eta hala izaten jarraitzen du gaur egun ere. Sasoi hartako testuinguru politikoak baldintzatuta, 1975. urtera arte Sociedad Femenina Eibarresa deitu zen.



Farmaziak

|                                        |
|----------------------------------------|
| <b>BARIXAKUA 27</b>                    |
| EGUNEZ   Barandela (Ziriako Agirre, 4) |
| <b>ZAPATUA 28</b>                      |
| EGUNEZ   Lekunberri (Isasi, 11)        |
| <b>DOMEKA 29</b>                       |
| EGUNEZ   Castaño (J. Etxeberria, 7)    |
| <b>ASTELEHENA 30</b>                   |
| EGUNEZ   Castaño (J. Etxeberria, 7)    |
| <b>MARTITZENA 31</b>                   |
| EGUNEZ   Zulueta (San Agustin, 5)      |
| <b>EGUAZTENA 1</b>                     |
| EGUNEZ   Mendinueta (Urkizu, 6)        |
| <b>EGUENA 2</b>                        |
| EGUNEZ   Castaño (J. Etxeberria, 7)    |
| <b>BARIXAKUA 3</b>                     |
| EGUNEZ   Castaño (J. Etxeberria, 7)    |

Hildakoak

- **Alberto de Luis Martinez.** 57 urte. 2026-03-10.
- **Santiago García Caceres.** 85 urte. 2026-03-11.
- **Encarna Azurmendi Berasategi.** 77 urte. 2026-03-11.
- **M<sup>a</sup> Pilar Arrillaga Irastorza.** 86 urte. 2026-03-12.
- **Felix Iriondo Egaña.** 88 urte. 2026-03-14.
- **Oscar Contreras Cordero "Indio".** 59 urte. 2026-03-16.
- **Irene Salgado Azkonizaga.** 57 urte. 2026-03-20.
- **Florencio Lopez Saez "Flopo".** 86 urte. 2026-03-22.
- **M<sup>a</sup> Angeles Diez Bañuelos.** 85 urte. 2026-03-22.
- **Delio Olabe Arrizabalaga.** 92 urte. 2026-03-25.
- **Maria Luisa Usatorre Lizarralde.** 94 urte. 2026-03-25.

Telefono jakingarriak

|                          |                             |
|--------------------------|-----------------------------|
| SOS deiak                | 112                         |
| Pegora                   | 010                         |
| Udaletxea                | 943 70 84 00                |
| Portalea                 | 943 70 84 39                |
| Udaltzaingoa             | 943 70 84 24                |
| Mankomunitatea           | 943 70 07 99                |
| Debegesa                 | 943 82 01 10                |
| KIUB                     | 943 20 38 43                |
| Kirol Patronatoa         | 943 20 32 40                |
| Epategia                 | 943 03 34 00                |
| Iberdrola                | 900 17 11 71                |
| Naturgas                 | 902 12 34 56                |
| DYA Larrialdiak          | 943 46 46 22                |
| Gurutze Gorria           | 943 22 22 22                |
| Eibar Ospitalea          | 943 03 29 00                |
| Mendaro ospitala         | 943 03 28 00                |
| Anbulategia              | 943 03 25 00                |
| Torrekoa                 | 943 03 26 50                |
| Errepideak               | 902 11 20 88                |
| Ertzaintza               | 943 53 17 00                |
| Eusko Tren               | 944 33 33 33                |
| Lurraldebus              | 900 30 03 40                |
| Pesa                     | 900 12 14 00                |
| Taxiak                   | 943 20 30 71 / 943 20 13 25 |
| Andretxea                | 943 54 39 38                |
| Alkohol. Anon.           | 629 14 18 74                |
| Al-Anon / Alateen        | 650 26 59 63                |
| Grupo Egun Bat (Jokozale |                             |
| Anonimo eta Familiak)    | 699 37 75 20                |



## Azoka solidarioa egingo da bihar goizean Helmet House-n, Indiako produktuekin

**S.H.** Bihar (zapatua, martxoak 28) Merkatu Solidarioa zabalduko dute Helmet Housen, 11:00etatik 15:00etara. Ibarratik Misio Taldea GKEak sustatzen dituen proiektu solidarioak finantzatzeko laguntzeko asmoz antolatu dute azoka, eta bertan Indiako produktuak salduko dituzte: eskulanak, arropak, espeziak...

Ibarratik Misio Taldea GKEko kidea den Irati Ayerzak azaldu digunez, "Indian garapen proiektuak sustatzeko dirua biltzea da

helburua. Une honetan, Karitateko Karmeldar Vedrunekin 32 etxetan lan egiten dugu Ibarratik Misio Taldetik, India osoan zehar. Hasi Karnatakatik (hegoaldean) eta Arunachal Pradesh (ipar-ekialdean) eta Gujarateraino (mendebaldean). Nagusiki, emakumeen prestakuntza eta ahalduzko proiektuak dira, baita hezkuntza eta osasun arlokoak ere. Bestetik, biharko azokan Indiatik etorritako eta gurekin lankidetzan aritzen diren lau moja egongo dira".

## Txonta auzoaren birgaitzeak 3,5 milioi eurotik gorako dirulaguntzak izango ditu

**S.H.** Eibarko Udalak jakinarazi duenez, Txonta auzoa berritzeko lanek aurrera jarraitzen dute, eta dagoneko 3,5 milioi euro baino gehiago jaso dituzte dirulaguntzetan. Laguntza horiek Eusko Jaurlaritzaren Berpiztu programatik, Next Generation funts europarretatik, Energiaren Euskal Erakundetik (EEE) eta Eibarko Udaletik iritsi dira. Hasiera batean, egitasmoak

auzoko 17 eraikin eta 224 etxebizitza hartzen zituen, baina azkenean bi atarik ez parte hartzea erabaki dute, eta, ondorioz, 15 erkidego eta 187 etxebizitza ari dira prozesuan parte hartzen. 2026ko martxoaren 4ko datuen arabera, egindako jarduketek 3,5 milioi euro inguruko dirulaguntzak esleitu dituzte. Finantzaketa lau ildo nagusitan banatu da.



## Eibarko Udalak aurrekontu-bisore berri bat jarri du abian Interneten

**S.H.** Eibarko Udalak udal-aurrekontuak ikusi ahal izateko bisore berri bat jarri du martxan. Tresna digital honen bidez, udala nola finantzatzen den eta baliabide publikoak zertan inbertitzen diren argi eta erraz ikusi ahaliko da. *Dynamic OpenGov Technologies* SLk sortutako tresna berria *aurrekontuak.eibar.eus* URLaren bitartez ikus daiteke (gazteleraz, *presupuestos.eibar.eus*), eta Fundacion Ciudadana CIVIOk 2017an sortutako *dondevanmisimpuestos.eibar.eus* (euskaraz, *noradoaznirezergak.eibar.eus*) plataforma ordezkatzera dator.

Plataformak (*eibar.eus* udal-webgunetik sartuta ere bisitatu daitekeena) ahalbidetzen du udal-aurrekontuak grafiko interaktiboan, bistaratze dinamikoan eta deskargatu daitezkeen datuen bidez kontsultatzea eta ulertzea. Horrela, udal edo diru-sarrerak eta -gastuak xehetasun maila desberdinekin esplora daitezke. Bisoreak funtsezko galderei erantzuteko aukera ere ematen du, hala nola nondik datozen udalaren diru-sarrerak, zertan gastatzen den, edo zer arlotan kontzentratzen den gastu publiko handiena, eta, gainera, aurrekontuek azken urteetan izan duten bilakaerari buruzko informazioa ere eskaintzen du.



## Eraitsi dute Arraguetako 16. zenbakiko etxea

**S.H.** Eibarko Udalak jakinarazi duenez, laster hasiko dira Arragueta kaleko berrurbanizazio lanak Arragueta kaleko 16. zenbakiko eraikina eraitsi eta jarraian. Hain zuzen ere, aste honetan hasi dira aipatutako eraikina botatzeko lanak eta, berez, bota beharreko etxea eraisten amaitu dute, baina orain

obra-hondakinak eta bestelakoak garbitzeko lanean dihardute. Jarduketak 1,25 milioi euro inguruko aurrekontua izango du, eta Arragueta kalea erabat berrurbanizatzea aurreikusi dute, Arikitzza eta Urki-zu arteko zatian. Oro har, irisgarritasuna hobetzea aurreikusten dute.

## Eibarko PROFESIO LIBERALAK

### ABOKATUAK

**CRISTINA BAZ LARRAÑAGA**  
Fermin Calbeton 4, 3 esk.  
Tel. 943 12 80 55  
[www.cristinabaz.com](http://www.cristinabaz.com)  
[cristinabaz@icagi.net](mailto:cristinabaz@icagi.net)

**MARTA VALERA ECHALUCE**  
Fermin Calbeton 4, 3 D lokala  
Tel. 659 38 33 19 - 943 20 05 70  
[abogada@martavalera.es](mailto:abogada@martavalera.es)

### AHOLKULARIAK

**GAURVE**  
Fermin Calbeton 13-15  
Tel. 943 20 24 61  
[www.gaurve.com](http://www.gaurve.com)  
[consultores@gaurve.es](mailto:consultores@gaurve.es)

**GESTILAN**  
Zezenbide 4  
Tel. 943 20 70 02  
[www.gestilan.es](http://www.gestilan.es)  
[gestilan@gestilan.es](mailto:gestilan@gestilan.es)

### BITARTEKARITZA

**CRISTINA BAZ LARRAÑAGA**  
Fermin Calbeton 4, 3 esk.  
Tel. 943 12 80 55  
[www.cristinabaz.com](http://www.cristinabaz.com)  
[cristinabaz@icagi.net](mailto:cristinabaz@icagi.net)

Hemen zure lekua  
Informazioa: 943 20 09 18 ( ...eta kitto!)



## Goi Argi emakumeen elkarteak omendu dute bere sorreraren 75. urteurrenean

**S.H.** Goi Argi Eibarko emakumeen elkarteak 75 urte bete berri ditu eta, hori dela eta, Udaleko Berdintasun sailak eta Ego Ibarra batzordeak omenaldia antolatu dute. San Jose egunez zabaldu zituen ateak Goi Argi elkarteak, eta urteurrenaren harira prestatu zuten omenaldia ere halako egunez, martxoaren 19an egin zen Eibarren, udaletxeko pleno aretoan. Aitortza egiteko ekitaldian

Miren Elgarresta Emakundeko presidentea, Xabier Legarreta sailburuordea (Eusko Jaurlaritzaren ordezkari gisa) eta Nerea Isasi Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasuneko zuzendaria egon ziren, Goi Argiko bazkide, senide eta beste hainbatekin batera. Amaieran, oroigarri gisa, Eibarko udaletxearen fatxada eman zioten Goi Argiko sortzaileetako bat den Mari Karmen Apellanizi.

## Martxoaren 31n amaituko da Ipuruako garaje plazak eskatzeko epea

**S.H.** Eibarko Udalak gogorarazi du martxoaren 31n amaituko dela Ipuruako garaje plazak eskuratzeko lizitazio publikoan parte hartzeko epea. Ekimen honen bidez, guztira 38 plaza esleituko dira, 50 urterako. Garajeak Santaines kaleko Ipuruako Anexoko etxabeetan kokatuta daude, eta helburua da auzoan azken urteotan nabarmendu den aparkaleku faltari irtenbidea ematea. Esleipena zozketa bidez egingo da onartutakoan artean, eta lehentasuna izango dute gertuko kaleetan bizi direnek (A gunea), nahiz eta gainerako herri-tarrek ere parte hartu ahal izango duten (B gunea). Parte hartzeko, ezinbestekoa da Eibarren erroldatuta egotea 2024ko urtarrilaren 1etik, ibilgailu baten jabe izatea eta oinarrietan jasotako gainerako baldintzak betetzea. Eskaerak Udalaren webgunean edo Pegora Herriararen Zerbitzurako Bulegoan aurkeztu daitezke.



## Eibar BHI-ko Simone Ojanguren Espainako Filosofia Olinpiadarako sailkatu egin da

**S.H.** Martxoaren 13an Euskadiko VIII. Filosofia Olinpiada jokatu zen Lakuan, Eusko Jaurlaritzaren egoitzan. Ekimen hau DBHko eta Batxilergoko ikasleen artean pentsamendu kritikoa lantzeko topagune gisa finkatu da, eta aurtengo edizioako finalean 28 ikastetxetako 74 lagunek hartu dute parte.

Eibar BHI-ko Simone Ojangu-ren argazkilaritza filosofikoaren arloan lehiatu zen, eta bere saileko txapela berak jantzi zuen. Horri

esker, zuzenean eskuratu du Espainiako Filosofia Olinpiadetan parte hartzeko txartela. Eibarko ikasleak Estatu Mailako Olinpiadetan EAE ordezkatzeko du. Ciudad Realen jokatzeko dituzte, apirilaren 17-19ko asteburuan. Estatu mailako finalari begira, ilusioz eta jakin-minez doala dio: “Badakit maila handia egongo dela, baina nire onena ematen saiatuko naiz, eta esperientziaz ahalik eta gehien gozatu nahi dut”.



## Eibarko Gure Eskuk Herritu txartela egiteko aukera emango du hainbat egunez

**S.H.** Eibarko Gure Eskuk Herri-tu txartela egiteko aukera eskainiko du datozen asteetan, herrian hainbat egun eta gunetan postuak jarritz. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, Guridi alboan jarriko dute mahaia egun hauetan: martxoaren 28an, zapatua, Korrika Egunean, 12:00etatik aurrera; apirilaren 10ean, barixakua, 12:00etatik 14:00etara, Euskal Herriko Itzuliaren etaparekin bat eginez; eta apirilaren 18an, zapatua, 19:30etik 21:30era.

Martxoaren 28an, gainera, Korrika Eguneko giroa aprobetxatuta, herri-bazkarian ere egongo da Herritu txartela egiteko aukera.

Bestalde, martitzenetan ere izena emateko aukera izango da, Eibarko Klub Deportiboan (lehen solairuan), 18:30etatik 19:30etara. Kanpaina martxan dagoen bitartean astero egongo dira bertan, ai-patutako ordutegi horretan.

## Zaporeak Debabarrena erronka benetan arrakastatsua izan da 8. edizioan ere

**S.H.** Balorazio oso positiboa egin du Zaporeak Debabarrena ekimenak aurtengo edizioari buruz. Antolatzaileen hitzetan, zortzigarren edizio hau bereziki nabarmendu da eskualde osoko herrien parte-hartze zabal eta orekatuagatik, baita askotariko kolektiboen inplikazioagatik ere. Azpimarratu dutenez, kirol taldeek, Gureak eta Garagunea bezalako erakundeek, ikastetxeek eta bestelako elkar-teekek erakutsitako sentsibilizazioa eta konpromisoa funtsezkoak izan dira. “Elkarlana bi noranzkoko izan da: haiek lagundu digute eta guk ere ekarpena egin diegu”, adierazi dute.

Datu ekonomikoei dagokienez, 8. erronka solidarioak emaitza esan-

guratsuak utzi ditu: 50.000 eurotik gora bildu dira elikagaietan, 5.000 euro zozketen bidez, 1.650 euro tupper solidarioan, eta 700 euro inguru kutxetan. Horrez gain, antzeko kopurua jaso da dohaintza anonimoetan. Eibarko Calbeton kalean jarritako dendak ere 4.000 euro baino gehiago bildu ditu.

Aurrera begira, hezkuntza arloan elkarlanean aritzeko prestutasuna erakutsi dute antolatzaileek. Bereziki DBHko ikasleei zuzenduta, esperientziak partekatzeko hitzaldiak emateko edo sentsibilizazio proiektuak garatzeko aukera zabalik dago: “Prest gaude datorren urtean ere hezkuntza eta kontzientziazio proiektuetan parte hartzeko”.



osagarrien personalizazioa

www.publiresa.com  
943 701 497 / 687 879 667  
publiresa@publiresa.com



merchandising  
serigrafia  
lanerako erroka

Armagin 3-5 beheak  
publiresa@publiresa.com



LORADENDA

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

LORA ETA LANDARE  
NATURAL ETA  
LEHORRAK  
EZKONTZETARAKO  
LORAK  
ZENTROAK  
ERRAMUAK

Enkarguak etxera

# Jendez betetako kaleek agerian laga zuten euskal langileriaren indarra

Testua eta argazkiak **SILBIA HERNANDEZ ARRAZOLA**

1.500 euroko gutxieneko soldata propioa Hego Euskal Herrirako, eta, oro har, soldatak igotzea, aberastasuna banatzeko. Martxoaren 17an aldarri horrekin irten ziren kalera milaka langile Hego Euskal Herri osoan. Eguerdian Eibarren egin zen manifestazioan 4.000 lagunetik gora elkartu ziren. Aurretik, bi zutabe abiatu ziren, bata Urkizutik eta bestea Uni Eibar-Ermua paretik, Untzagan bat egin eta herriko kaleak elkarrekin zeharkatzeko. Arratsaldean egin zen manifestazioak ere parte-hartze handia izan zuen. Sindikatuen arabera, "greba orokorrak bultzada sendoa eman dio gutxieneko soldataren borrokari eta, milaka langileren bultzadari esker, LGS propioa lortzeko aukerak zabalik jarraitzen dute".

Argazki gehiago  
elkartaren webgunean:







Saio honetan Debabarreneko tortilla pintxo jarri dugu erdigunean. Eskualdean zehar ibili gara galdera bati erantzuna bilatzen: zein da Debabarreneko tortilla pintxorik onena?

Horretarako, lau herri bisitatu ditugu eta zortzi tabernatan sartu gara, baina ez edonola: gure Instagrameko kontuan jarritako bozketan jendeak gehien aipatutako proposamenak hartu ditugu abiapuntu.

### ALBISTEAK

Mendaroko ospitalean lehiaketa bat egin dute bertako langileek osasungintzan euskaraz aritzeko asmoarekin.



Zaporeak Debabarrena ekimenaren 8. erronka solidarioak balorazio oso positiboa izan du antolatzaileen hitzetan.



### Mar 27

|                                                                        |       |                      |
|------------------------------------------------------------------------|-------|----------------------|
| ANTZER. <b>ZERUA LAPURTU DUTE</b><br>(PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS) | 17:00 | ANTZOKIA (ERMUA)     |
| ANTZER. <b>EL ENCARGO</b>                                              | 19:00 | COLISEO (EIBAR)      |
| ANTZER. <b>SCAPE ROOM</b> (KORRIKA)                                    | 19:00 | ANTZOKIA (ELGOIBAR)  |
| IKUSK. <b>KOMEDIA GAUA</b><br>(JONE BENGOA, BEÑAT ITURBE,...)          | 19:00 | GAZTETXEA (SORALUZE) |
| TAILER. <b>ONGIZATE EMOZIONALA</b>                                     | 17:30 | GAZTELEKUA (DEBA)    |
| MUSIK. <b>AKUSTIKOVERS</b>                                             | 20:30 | ASIGOR (SORALUZE)    |

### Mar 28

|                                                                            |       |                                  |
|----------------------------------------------------------------------------|-------|----------------------------------|
| MENDI. <b>ZORNOTZA-DURANGO</b>                                             | 08:20 | TREN GELTOKIA (ERMUA)            |
| DANTZ. <b>DANTZA SAIO IREKIA</b>                                           | 12:00 | MERKATU PLAZA (ERMUA)            |
| OSPAK. <b>KORRIKA EGUNEKO EGITARAUA</b>                                    |       | EIBAR, ELGOIBAR, ERMUA, SORALUZE |
| IPUIN. <b>LILI ETA HERENSUGEA</b>                                          | 12:00 | PORTALEA (EIBAR)                 |
| ARTE MARTZ. <b>THERMOPYLAE</b><br>(ARTE MARTZIAL MISTOAK)                  | 16:00 | ASTELENA FRONTOIA (EIBAR)        |
| TAILER. <b>ZAINTZAILE ETA ETXEKO LANGILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK</b> | 17:00 | ANDRETEXEA (EIBAR)               |
| FERIA. <b>HIL BUKAERAKO FERIA</b>                                          | 09:00 | AITA AGIRRE (ELGOIBAR)           |
| BERTSO. <b>AFARIA.</b> (MAIALEN LUJANBIO eta AMETS ARZALLUS)               | 21:00 | HOSTALEAN (ITZIAI)               |
| MUSIK. <b>ULIA BRASS</b>                                                   | 20:00 | ELIZAKO KLAUSTROA (DEBA)         |
| BERDEL. <b>DJ ABDELA EGUNA</b>                                             | 23:30 | GAZTETXEA (MUTRIKU)              |

### Mar 29

|                                                             |       |                        |
|-------------------------------------------------------------|-------|------------------------|
| IRTEERA. <b>TXORIARIK EZAGUTU ETA IKUSI</b> (ASIER SARASUA) | 09:00 | URKIZU (ITURRIXA)      |
| IBILBID. <b>GERRA-FRONTAREAN IBILBIDE HISTORIKOA</b>        | 11:00 | ARRATE (EIBAR)         |
| ERROMER. <b>KALEAN KANTUZ ETA EINGO TALDEAK</b>             | 12:30 | IBILTARIA (DEBA)       |
| TAILER. <b>UMBREL EDO STRAT9 ERABILTZEN DUZU?</b>           | 15:30 | IMP (EIBAR)            |
| ZINEA. <b>LABURBIRA FILM LABUR</b>                          | 19:00 | KULTUR ELKARTEA (DEBA) |

# Gu ere euskara garela erakusteko ordua ailegatuko zaigu bihar

AEK-ren eskutik eta 'Euskara gara' lelopean, martxoaren 19an abiatu zen Atharratzetik 24. Korrika eta, hamar gauren eta hamaika egunen buruan, Bilbon amaituko da domekan, martxoaren 29an. Ordurako, 3.436 lagunek erabilia izango dute lekukoa, eskuz eskuz, eta 2.175 kilometro eginak izango ditu euskararen aldeko lasterketa erraldoiak. 1980an sortu zen Korrika eta bi urtez behin zeharkatzen du Euskal Herria. Lehen ediziotik gaur arte Eibar beti izan da Korrikaren ibilbidean oso presente egon den herrietako bat eta, jakina, 24. edizio honetan ere hala izango da.

Testua **SILBIA HERNANDEZ ARRAZOLA**



**Z**apatu iluntzean, 21:11 aldera espero da 24. Korrika Eibarren sartzea, eta 3144-3166 kilometroen arteko ibilbidearen zatia beteko da gure herrian. Hala ere, aurretik (20:38 aldera) Eibarko lau taldek (Kirolbet, Tekniker, Codesyntax eta Euki) Maltzagan hartuko dute lekukoa, Elgoibartik Soraluzera bidean (3132-3135 km.). Eta, handik bueltan, Maltzaga ingurutik sartuko da 24. Korrika Eibarren, erdialdeko ibilbidea (3145-3158 km) betetzeko. Beste batzuetan bezala, herriko ardatz nagusiak zeharkatuko ditu, bi buelta egin eta, Amañatik, Ermurako bidean jarraitzeko. Edizio honetan Eibarren lekukoa hartuko duten elkarte eta taldeak hauek dira: Urbat, Erain (Soraluzetik Maltzagara bidean); Eibar Rugby Taldea, Eibar Eskubaloia (Maltzagara bidean); Eibarko Dendarien Elkartea, Eibarko Udaleko langileak

(Maltzagako biribilgunea); EH-ko Mendizaleen Biltzarra, Hankamotxak (Maltzaga eta Azitain artean); Eibarko Suhiltzaileak, Yarzan Lagunak (Maltzaga-Azitain); Eibar BHI, Eibar BHI Guraso Elkartea (Barrena, Eibarko sarrera); Podemos, Asua Erreka Urkizu (Barrena, 34); Laborala, Aldatze ikastetxea (Barrena, 10); San Andres Eskola, San Andres Guraso Elkartea (Barakaldo, 17); Mogel ikastola, Mogel Guraso (Urkizu, Eroski parean); Sortu, Bildu (Errebal Coliseo parean); Baso Biziak, Klub Deportivo, Kaxa (T. Etxebarria 27, eskultura parean); Eibarko Mugimendu Feminista, Eibarko Gazte Mugimendua, EH-ko Gazte Feministak (Calbeton, Fotoprix pareko bidegurutzea); Eibar Palestinarekin, Arrate Kultur Elkartea (Bidebarrieta, Itxesi parean); Eibarren Akebai, ...eta kitto! Euskara Elkartea, Gure Esku Dago (Ongi Etorri taberna parean, biga-



Egunez zein gauez, Korrikak beti izan du parte-hartze handia Eibarren, eta euskararen aldeko lasterketa erraldoiak jai-giro ederrean zeharkatzen ditu gure herriko kaleak. EKHI BELAR

rreren buelta); LAB, Astixa (Untzaga, Txoko parean); AEK, Josu Egiguenen Lagunak (AEK euskaltegia); Ipuruako Jai Batzordea, Ipuruako Merkatu Plaza (San Pio-Komat artean); Eibarko Udala, Eibar foball taldea (R. Galdos, 21); Amañako Jai Batzordea, Etxerat (Amañako biribilgunea); La Salle Eibar, La Salle Guraso Elkartea (T. Anitua 11, Fontaneria Amaña); eta Armeria Eskola, Uni Eibar Ermua (T. Anitua, 23).

### **Korrika Eguna ospatzeko egitarau zabala, goizetik hasita**

Iluntzean ailegatuko zaigu 24. Korrika baina, horren aurretik, egun osorako egitaraua prestatu dute, lasterketa Eibarren sartzen denerako beroketak eginda eta herria ondo girotuta egoteko: “Biharkoa zapatu bete-betea izango da, ospatzeko eguna. Goizetik gauera, auzoetatik erdigunera, denak Korrikara batze-

ko deia da hau”. Horrela, 10:00etatik aurrera hainbat tailer eskainiko dituzte Ipuruako Merkatu Plazan, eta 12:30ean Korrika Txikia hasiko da (Argatxan). Urki auzokoan Korrika Txikia, berriz, 11:00etan hasiko da (Kurutzekuatik) eta, 11:30ean, herri-kirolak egongo dira (ikastetxe-ko patioan). Auzoetatik kanpora, Untzagan egongo da Korrikaren gune nagusia: 12:00etan txosna zabalduko dute, ondoren poteo-girotua hasiko da eta, herri-bazkariaren aurretik, talde-argazkia aterako dute. Arratsaldean, berriz, Kaxaren eskutik zumbatoia egingo da, eta 19:00etatik aurrera Matraka elektrotxarangakoak arituko dira. Eta, Korrika Eguna biribiltzeko, 22:30etik aurrera erromeria egongo da, Iratzar taldearekin.

### **Eibar beti presente**

1980. urtean egin zen lehen Korrika, Oñatitik Bilbora, eta Eibarrek

**Korrika Eguneko herri-bazkarian 300 eibartar elkartzeko erronka bota dute antolatzaileek, eta honezkero 200 txartel baino gehiago saldu dituzte.**

paso garrantzitsua izan zuen Debabarreneko zatian. Garai hartan Eibarren euskararen aldeko giroa oso handia zen, eta ikastola eta euskara elkarteek parte-hartze masiboa antolatu zuten. Ondorengo edizioetan ere parte hartu zuen Eibarrek eta, 1980ko hamarkadan, Korrika pasatzen zen bakoitzean herriko

**Korrikaren historian,  
parte-hartze  
handiarengatik  
eta kilometro  
asko erosteagatik  
nabarmetzen da  
gure herria.**



Umoreak bete du Korrika Kulturalaren egitarauko zati handi bat: Beleko tabernak Barry Barrez bakarriketa hartu zuen martxoaren 16an ...eta kitto!-k antolatuta, eta, egun batzuk lehenago, Barredromoa egin zen Klub Deportiboan, UEU-ren eskutik.

talde askok kilometroak erosten zizuten, eta festa giro handia sortzen zen herrian.

1990eko hamarkadatik aurrera, Eibarren Udalak, ikastetxeek eta elkarteek kilometro propioak erosten hasi ziren, sistematikoki, eta harrezkero edizio batetik bestera Korrika etenbarik hazten joan da, gaur egun ezagutzen dugun euskararen aldeko festa erraldoia bilakatu arte. Izan ere, 2000. urtetik aurrera Eibarren Korrikajai sozial handia bihurtu da, eta bere inguruan hamaika jarduera antolatzen dira beti: kontzertuak, ikastetxeen eskutik egiten den Korrika Txikia, kultur ekitaldiak...


Korrikaren historian, askotan aipatu izan da Eibar parte-hartze handia duen herrietako bat dela, kilometro asko erosten dituela. Baina, zergatik erosten dira hainbeste

kilometro Eibarren? Gure herrian Korrika arrakastatsua izatearen arrazoia ez da bakarra, hiru faktore nagusi elkartzearen ondorioa baizik. Historikoki industria-herria izateak badu bere garrantzia, enpresa txiki

**Zapatuan talde-  
argazkia aterako da  
Untzagan, 14:30ean,  
eibartarrok Korrikari  
emandako babesa  
erakusteko, eta  
herritar guztiak  
daude gonbidatuta.**

eta ertain askok kilometro propioa erosten dutelako, eta horrek asko handitzen du kilometro kopurua. Eta parte-hartzeari ere eragiten dio, lantegi batek kilometroa erosten duenean, askotan langile talde osoa ateratzen delako korrika. Horrekin batera, Eibarren elkarte sare handia dago (kirol klubak, kultur elkarteak, auzo-taldeak, ikastetxeak, guraso elkarteak...), eta talde bakoitzak kilometro bat edo gehiago hartzen badu, herriko kilometro kopuruak azkar egiten du gora. Eta, hori gutxi balitz, euskara mugimendu indartsua duen herria da gurea. Izan ere, Eibarren aspaldidanik egon dira, euskaltegi aktiboak, euskararen alde lan egiten duten talde eta elkarteak, eta ikastolen mugimendua ere garrantzitsua izan da. Horiek ematen diote nortasun berezia Eibarko Korrikari.

# IBILBIDEA



| ZKIA | ORDUA | NON                     | TALDEA     |
|------|-------|-------------------------|------------|
| 3132 | 20:38 | N634an, 59-60km artean  | Kirolbet   |
| 3133 | 20:41 | N634an, 60km kartelean  | Tekniker   |
| 3134 | 20:44 | N634an, 60-61km artean  | Codesyntax |
| 3135 | 20:46 | Maltzagako biribilgunea | Euki       |

-----SORALUZERANTZ ABIATU ETA MALTZAGARA BUELTATUKO DA-----

|      |       |                                 |                                            |
|------|-------|---------------------------------|--------------------------------------------|
| 3145 | 21:25 | Mendiola poligonoko zubia       | Urbat / Erain                              |
| 3146 | 21:29 | Mendiola poligonoko lehen zubia | Eibar Rugby Taldea/ Eibar Eskubaloia       |
| 3147 | 21:32 | Maltzagako biribilgunea         | Dendari Elkartea /Udal langileak           |
| 3148 | 21:35 | Industrias Mail alboan          | EH Mendizaleen Biltzarra / Hankamotxak     |
| 3149 | 21:37 | Kia Motors parean               | Suhiltzaileak /Yarzan lagunak              |
| 3150 | 21:40 | Eibar sarrerako kartelean       | Eibar BHI / Eibar BHI Guraso Elkartea      |
| 3151 | 21:42 | Barrena 34                      | Asua Erreka Urkizu / Podemos               |
| 3152 | 21:44 | Barrena 10                      | Laboral Kutxa / Aldatze Ikastetxea         |
| 3153 | 21:45 | Barakaldo 17                    | San Andres Guraso Elk. / San Andres Eskola |



## KORRIKA GUNEA UNTZAGAN

12:00 TXOSNA IREKIERA. Ondoren poteo girotua  
 14:30 ARGAZKIA. Jarraian HERRI BAZKARIA  
 18:15 ZUNBATOIA. Kaxa-ren eskutik  
 19:00 MATRAKA elektrotxaranga  
 21:00 DENOK KORRIKARA  
 22:30 IRATZAR erromeria

| ZKIA                   | ORDUA | NON                      | TALDEA                                          |
|------------------------|-------|--------------------------|-------------------------------------------------|
| 3154                   | 21:47 | Urkizu Pasealekua 1      | J.A. Mogel Guraso Elkarte / J.A. Mogel Ikastola |
| 3155                   | 21:48 | Coliseo Antzoki alboan   | Sortu / EH Bildu                                |
| 3156                   | 21:50 | Toribio Etxeberria 27    | Baso Biziak/ Eibarko Klub Deportiboa / Kaxa     |
| 3157                   | 21:52 | Fermin Kalbeton 1        | Mugimendu Feminista / Gazte Mugimendua / EHGF   |
| 3158                   | 21:53 | Bidebarrieta 6. (Itxesi) | Eibar Palestinarekin / Arrate Kultur Elkarte    |
| <b>BIGARREN BUELTA</b> |       |                          |                                                 |
| 3159                   | 21:55 | Toribio Etxeberria 21    | Akebai / ...eta kitto! / Gure Esku Dago         |
| 3160                   | 21:57 | Untzaga Plaza 9          | LAB / Astixa                                    |
| 3161                   | 21:59 | AEK Euskaltegian         | AEK / Josu Egigurenen lagunak                   |
| 3162                   | 22:01 | San Pio eta Komat artean | Ipurua Jai Batzordea / Ipurua Merkatu Plaza     |
| 3163                   | 22:02 | Romualdo Galdos 21       | Eibarko Udala / SD Eibar                        |
| 3164                   | 22:04 | Amañako biribilgunean    | Amañako Jai Batzordea / Etxerat                 |
| 3165                   | 22:06 | Tiburtzio Anitua 11      | La Salle Eibar / La Salle Guraso Elkarte        |
| 3166                   | 22:08 | Tiburtzio Anitua 23      | Armeria Eskola / UNI Eibar-Ermua                |

# Tipi-tapa, tipi-tapa: badator Korrika!

Martxoaren 28an, zapatua, gauez igaroko da euskararen aldeko lasterketa Eibartik, eta azken egunetan buru-belarri dabilta lanean AEK-ko kideak, egitarauak koordinatzen eta materiala prestatzen. Korrikak sortzen duen ilusioa herritar guztien bihotzetan bizirik dago, eta parte-hartzea auzoetara ere iristen da, ekintza kulturelekin eta familiak barne hartzen dituzten egitarauekin.

Testua **IRATI ALVAREZ MALAXETXEBARRIA**

**T**ipi-tapa, tipi-tapa, Korrika badator, eta Eibarren jada nabari da urduritasuna. Martxoaren 28an, zapatua, gauez igaroko da euskararen aldeko lasterketa herritik, eta azken egunetan buru-belarri dabilta lanean bertako AEK-ko kideak, egitarauak koordinatzen eta materiala prestatzen, besteak beste. “Lanpetuta gaude, baina pozik”, barre artean aitortu du Gorka Zubeldiak, Eibarko AEK-ko irakasle eta aurtengo eskualdeko Korrikako arduradunak. Ildo beretik mintzatu da Nerea Ibarluzea AEK-ko pertsonen arduraduna: “Eguneroko lana egiten gabilta, eta gainera Korrikaz blai gaude!”.

Jone Olaizolak, Eibarko eta eskualdeko AEK-ko arduradun eta irakasleak, Korrikak sortzen duen ilusioa nabarmendu du: “Lasterketa berezia da, jende askoren inplikazioa eskatzen duena”. Hala ere, ardura ere badakar: “Antolakuntzan gauden heinean, kezka ere badugu dena ondo ateratzeko”. Azken asteetan egitarauak lotzen, kilometroak koordinatzen eta lekukoentzako petoak prestatzen aritu dira, beste lan askoren artean. “Hori bai, hau elkarlana da zalantzarik gabe”, dio Olaizolak, “denok parte hartzen ez badugu, ezinezkoa litzateke aurrera ateratzea”.

Eibarren 26 kilometro egingo ditu Korrikak, eta lan teknikoa urtebete lehenagotik presta-

tzen da. “Tbilbidea eta kilometroak aurrez adostu behar dira, eta gero herriko eragileekin hitz egin”, azaldu du Zubeldiak. Aurten ere erantzuna oso ona izan da: “Jendeak gogoz hartu du parte, eta hori oso pozgarria da”.

Korrika Eguna baino harago, hilabete osoan zehar egin den Korrika Kulturalak protagonismo berezia izan du. “Oso arrakastatsua izan da”, dio Zubeldiak, “eta elkarlana nabarmendu du, eragile askoren ekarpenarekin osatu baitugu egitaraua”. Ibarluzeak gaineratu du: “Korrikaren aurreko hilabetea girotzeko baliok izan du, eta kultura eta euskara uztartzeko aukera eman du”.

Aurten, gainera, egitaraua auzoetara zabaltzea izan da berrikuntzetako bat. “Ideia batzordean sortu zen, eta auzoek oso ondo hartu dute”, azaldu du Zubeldiak. Auzoetako taldeek euren proposamenak egin dituzte, eta horrek egitaraua aberastu du. “Zapatuan giro ederra egongo da”, aurreikusi du Olaizolak, “eta proposamen polit asko jasotzea oso pozgarria izan da”.

Hala ere, Korrikaz eta jai giroaz harago, euskararen egoeraz galdetuta, kezka sortzen duela ohartarazi dute. “Ez gaude oso baikor”, aitortu du Olaizolak. “Erabilera datuek ez dute hobera egiten: eutsi edo beherantzko joera dago”. Zubeldiak bereizi egin ditu Korrikaren indarra eta



Nerea Ibarluzea, Gorka Zubeldia eta Jone Olaizola Eibarko AEK-ko kideak. EKHI BELAR

eguneroko egoera soziolinguistikoa: “Korrikak ez du berez egoera aldatuko, baina pizgarria izan daiteke herri mailan zerbait mugitzeko”.

Euskaltegiko egunerokoari dagokionez, ehun ikasle inguru dabilta Eibarko AEK euskaltegian matrikulatuta. “Azken urteetan matrikulazioa igo egin da”, azaldu du Olaizolak, baina erronka handia da oraindik jende gehiago erakartzea. Horretarako, Korrikaren ondoren ekimen berezi bat antolatuko dute: Korrikaren hamabigarren eguna antolatuko dute; bertan, hasiberrientzako doako klase bat eskainiko dute. “Helburua da Korrikako ilusioa urte osora eramatea”, dio Zubeldiak, “eta jendeak euskaraz ikasteko aukera izatea”. Ibarluzeak gaineratu du euskaltegiaren ateak zabaldu nahi dituztela: “Hamabigarren egun horretan jendea etortzea, euskaltegiko metodologia probatzea eta, ahal bada, gelditzea da asmoa”.

Amaitzeko, dei argia egin dute: “Korrika bizi egin behar da”, dio Ibarluzeak. Zubeldiak disfrutatzeko gonbita egin du, eta Olaizolak gogorarazi du Korrika jai bat dela, baina baita aldarrikapena ere.



**>>> “Korrikak ez du berez egoera aldatuko, baina pizgarria izan daiteke herri mailan zerbait mugitzeko”**

**>>> “Euskara ardatz duen komunitate anitza gara, eta erronka nagusia da euskararen aldeko jarreratik eguneroko erabilerara jauzia ematea”**

# KORRIKAKO PRODUKTUEN IRABAZLEAK

Malen Mardaras  
eta Ander Gabirondo,  
Miren Charolaren  
izenean



Nerea  
Barruetabeña



Ane Cid



Jone  
San Ildefonso,  
Hodei Izarraren  
izenean



Maria Garay



Iker Maiora



24.korrika *æek*  
**Euskara gara**  
 Athamatzetih Bilbona  
 2024ko martxoaren 19tik 29ra

**KORRIKA**ekin bat eginez  
**UNI EIBAR ERMUA**

**aurten ere KORRIKA**ekin

24.korrika *æek*  
**Euskara gara**  
 Athamatzetih Bilbona  
 2024ko martxoaren 19tik 29ra

**HITZEKIN**  
 Eibarren **euskarari ekin**

**AKEBAI**

*euskararekin bat*

24.korrika *æek*  
**Euskara gara**  
 Athamatzetih Bilbona  
 2024ko martxoaren 19tik 29ra

**J. Gisasola, 18**  
 943 20 61 00

[www.elortzabotika.com](http://www.elortzabotika.com)  
 online denda

**cepa hhi**  
 Eibar

**EPA EIBAR HHI**

24.korrika *æek*  
**Euskara gara**  
 Athamatzetih Bilbona  
 2024ko martxoaren 19tik 29ra

“Eman euskara elkarri”

**HITZEKIN EUSKARARI EGIN**

**J.A. Ogel Ikastola**

24.korrika *æek*  
**Euskara gara**  
 Athamatzetih Bilbona  
 2024ko martxoaren 19tik 29ra

24.korrika *æek*  
**Euskara gara**  
 Athamatzetih Bilbona  
 2024ko martxoaren 19tik 29ra

**GURIDI RUGBY**

*euskara rekin bat*

**DEPOR TABERNA**

“Euskara, gure arnasa”

24.korrika *æek*  
**Euskara gara**  
 Athamatzetih Bilbona  
 2024ko martxoaren 19tik 29ra

**IBONE ESTETIKA**

24.korrika *æek*  
**Euskara gara**  
 Athamatzetih Bilbona  
 2024ko martxoaren 19tik 29ra


**EUSKARAREKIN BAT**  
 R. Galdos, 10 943 20 16 01

**SUMENDIXA GOIKOA S.L.**

**MAPFRE UBITXA**

24.korrika *æek*  
**Euskara gara**  
 Athamatzetih Bilbona  
 2024ko martxoaren 19tik 29ra

Sostoa, 1 943 82 04 49



urtez urte...

2007





urtez urte...

2009





urtez urte...

# 2011



urtez urte...

2013





urtez urte...

# 2015



  
urkotronik  
euskararekin bat



 aldatze  
denok gara



 Eibar BHI



“Hizkuntza bat, bihotz bat”

 Armeria Eskola<sup>x</sup>



Euskara, bihotzetik ahora

**Euskararekin**  
**BAT**  
**EGIN**

ehbildu

*Irrintzi zahar bat  
aho gaztetan  
gailur berrietan*





urtez urte...

# 2017





urtez urte...

2019



urtez urte...

2022





urtez urte...

2024



# “Guretzat ohorea da Korrikan lekukoa eramatea”

LEYDY GOMES, SANOU SAMB ETA SADITH QUISPE • ...eta kitto! Euskara Elkartearen lekukoa



Ongietorri programan euskarara hurbiltzeko saioetan diharduten Leydy Gomes, Sanou Samb eta Sadith Quispek eramango dute ...eta kitto! Euskara Elkartearen lekukoa Korrikan. Gainera, Korrika biziko duten lehen aldia izango da eurentzat eta unea iristeko irrikitan daude.

Testua **EKHI BELAR ERRASTI**

## Korrikan ...eta kitto! Euskara Elkartearen lekukoa eramango duzue. Nola sentitzen zarete horren aurrean?

LEYDY: Oso hunkituta eta pozik. Nire herrialdean, Perun, kitxuaz egiteari utzi zaio toki askotan, baina hemen bertako hizkuntzarekiko sentimendu sakona dago eta gauza asko egiten dira euskara erabiltzen jarraitzeko. Horrek hunkitu egiten nau. Perun kitxua, aimara eta gaztelera erabiltzen dira, baina nik ez dut kitxua ikasi eta amorrua ematen dit, gure sustraia delako eta albo batera laga dugulako.

SADITH: Ni oso pozik nago eta ...eta kitto! Euskara Elkarteari eskerrak eman nahi dizkiot Korrika bezalako ekitaldi garrantzitsuan parte hartzen lagatzeagatik. Ohorea da lekukoa eramatea.

SANOU: Nire aldetik, nire herrialdetik (Senegal) etorri den jendeari erakutsi nahi diot hona ez gara lan egitera bakarrik etorri, baizik eta bertako jendearekin elkarbizitzera.

## Ez da oso ibilbide luzea izango, baina korrika egiteko prestatu zarete?

SADITH: Korrika egitea zaletasuna dut eta asko gustatzen zait mendian ibiltzea, lasterketetan aritzea, eta abar. Beraz, ekintza honetan parte hartzeko grina dut. Momentuan asko gozatuko dudala pentsatzen dut.

LEYDY: Seme-alabei Korrikan parte hartuko dudala esan nien eta oso emozionatuta daude. Korrikaren aurreko edizioetako bideoak ikusi ditugu eta alabak korrika egitera edo ibiltzera joateko esaten

dit, biharko prest egoteko. Beraz, arratsalde batzuetan eurekin irten naiz ibiltzera edo korrika egitera. SANOU: Aspaldi ez nuen korrikarik egiten, baina astebate inguru daramat gauetan korrika egiten.

## Zapatu gauean izanda, plan berezirik prestatu duzue Korrika egunerako?

LEYDY: Alabaren urtebetetzea izango da eta goizean familiarekin ospatuko dugu. Gero, kalera irtengo gara giroa ikustera eta lekukoa hartzeko unea itxarotera.

SADITH: Zapatua izanik, familiarekin elkartuko naiz eta arratsaldean Korrikan parte-hartzeko prestatuko gara semea eta biok.

SANOU: Ia astebururo bezala, hemen bizi den familiaren zati batekin bazkaria daukat eta, gero, Korrika egitera.

## Korrikaren aurreko edizioetan parte hartu duzue?

SADITH: Niretzat lehen aldia da. Urtebete besterik ez daramat hemen.

LEYDY: Niretzat ere lehen aldia da, baina Perun antzeko ekintzetan hartu dut parte ('maratoiak' esaten diegu) emakumeen aurkako indarkeriaren kontra, adibidez.

SANOU: Lehen aldia izango da niretzat ere.

## Ongietorri programan hartzen duzue parte. Zergatik eman zenuten izena? Nola animatu zineten?

SADITH: Beste tokietako kulturak gertutik bizitzea eta hizkuntzak gustatzen zaizkit. Andretxeatik bideratu ninduten hona. Eskolan hasi berri den semea daukat eta berak euskaraz egiten dit, baina nik ez diot ulertzen. Beraz, ...eta kitto! -k eskaintzen dizkigun saioak



Hirukotea bihar eramango duten Korrikaren petoarekin. EKHI BELARRASTI

jasotzeak asko lagundu dit, orain semearekin euskara partekatzen dudalako.

SANOU: Nik ez nuen programa ezagutzen eta lagun batek eman zidan horren berri.

LEYDY: Nik ere seme-alabengatik eman nuen izena, eurek euskaraz egiten dutelako. Gainera, Azpeitian bizi izan nintzen bost hilatebetez eta han mundu guztiak egiten du euskaraz, baina nik ez nuen ulertzen eta egokitze ahalegina egiten nuen. Hemen aukera hau ikusi nuen eta zerbait ikasi dut. Orain hobeto ulertzen dut, badakit agurtzen, asteko egunak eta beste hainbat gauza, eta hobeto harremantzen naiz euskaldunekin.

**Saioak gustatzen zaizkizue?**

SADITH: Bai, asko! Terapia moduko bat da. Hemen sartzen naizenean kanpoko gauzetaz ahazten naiz,

beste giro batean sartzen zara, oso atsegina, eta garrantzitsua da gauza berriak ikastea.

LEYDY: Leirek oso modu didaktikoan irakasten du eta, ondo pasatuz, euskarara eta euskal kulturara hurbiltzen gara.

**Zer esango zeniekete euskarara gerturatu nahi, baina oraindik lehen pausoa eman ez dutenei?**

SADITH: Izena ematera animatu daitezela! Euskal Herrian bizi garen heinean, oso garrantzitsua da euskal giroan murgiltzea, bai seme-alabekin aritzeko bai lanerako.

LEYDY: Beldurra galtzea. Inoiz ez da berandu zerbait egiten hasteko. Kultura ezberdina dagoen tokian bizi gara eta bertara egokitu behar dugu euskarara gerturatuz.



**eta kitto!**  
euskara elkarte



**ZARELAKO GARA**



**La Salle**  
Eibar



**"EUSKARA DA BIDEA"**



MIKEL ARRILLAGA

## Euskararen begi-lagunak

Hilabeteak atertu gabe; euria zarra-zarra gehienetan, txingor mingarria sarri, eta alimaleko hotza: hezurak ere harri bihurtzeko modukoa. Egun epelagoak ere grisaxkak eta goibelak, laino beltzek estalitako zerupear. Okerrena izaten da euriari edo kazkabarrari haize bortitz oldarkorrek laguntzen dionean. Ai orduan... Orduan alferrik aterkiak, goretexdun jakak eta enparauak; mela-mela eta blai-blai egingo gara putzuetan plisti-plasta ibili beharrik gabe. Asperdura eta nekea partida irabaztear daudenean, ordea, hara zer gertatzen den: leihoa zabaldu eta zerua urdin agertzen da, eguzkia epel, haizea goxo. Berehala betetzen ditugu kaleak, mendiak, hondartzak, tabernetako terrazak; tenteago ibiltzen gara, irribarretsu, bizipozak harrapatzen gaitu, ilusioak. Gehienetan, gutxi irauten du argiuneak, eta zaluegi itzuli behar izaten dugu denborale amaiezinen menara.

Gaur egun horrelaxe bizi da euskara; ekaitz eta erauntsi oldarkorren azpian galzorrian. Kokoa beti prest zelatan; nondik erasoko, nola min egingo, arnasmuneak arnas estutzen, hitzun gehienak gaztelaniaz erosoago, sare sozialetan eta pantailetan, oro har, galtzaile, eta bere aldeko konpromisoa inoiz baino apalago. Asperdura eta nekea partida irabaztear daudenean, ordea, hara zer gertatzen den: bi urtean behin, leihoa zabaldu eta Korrika agertzen da alai eta giro paregabean. Berehala betetzen ditugu kaleak, tenteago ibiltzen gara, irribarretsu, bizipozak harrapatzen gaitu, ilusioak. Furgoneta iristean, hunkiturik, lasterketan sartzen gara eta abestia kantatzen dugu, euskararen alde oihukatu, eta zirrara etengabean jarraitzen dugu antxitxika gorputz eta arima, erretiratu nahi eta ezinaren arteko borrokan. Une horietan lortuko dugula sentitzen dugu, denon artean Euskal Herria euskaldunduko dugula, alegia; ez dela Aekideon eta euskaltzaleon amets ero hutsa.

Igandean bukatuko da Bilbon aurtengo edizioa. Ederra izan dela esango dugu, hunkigarria... Aek-k lanean segiko du Euskal Herri osoan, lortutako diruari esker, baina beste neurririk hartu ezean, euskarak oso larri jarraituko du ZIUan. Zer egiteko prest gaude? Uste dut betaurreko moreak bezala, euskararen begi-lagunak jarri beharra daukagula, autokritika egin eta hausnartu zenbateraino eragin dezakegun nork bere esparruetan, beti ere hizkuntz-politika askoz sendagoen babespean.

**“Uste dut  
betaurreko  
moreak bezala,  
euskararen  
begi-lagunak  
jarri beharra  
daukagula,  
autokritika egin  
eta hausnartu  
zenbateraino  
eragin dezakegun  
nork bere  
esparruetan”**



## Munduko txirrindulari gazte onenak izango dira Itzulia Basque Country lasterketan

**E.B.** Apirilaren 6an hasiko da Itzulia Bilbon eta 10ean iritsiko da Eibarrrera, aurtengoan azken aurreko etapan (Bergaran amaituko da aurtengo edizioa).

Lasterketaren irabazlea Eibarren erabakiko ez den arren, etapa erregina izango da hemengoa eta txirrindularitzaren pasioaz gozatzeko aukera ederra izango dugu, etapa hasiera eta amaieraz gain, birritan igoko direlako gure mendietara (lehenik Krabelinera Orbetik eta bigarrenik Ixura ohiko errepidetik).

Oraindik ez dute zehaztu partaidetza zein izango den, baina talde batzuek eman dituzte izen batzuk. Horrela, txirrindularitzan jaio berri den izarra egongo da, 19 urte besterik ez dituen eta Strade-Bianchen Tadej Pogacarrekin nor baino nor aritu den Paul Seixas; lasterketa horretan bere atzetik sartu zen Isaac Del Toro mexikarra; Juan Ayuso espainiarra; eta berpizten ari den Cian Uijtdebroeks belgikarra. Horrez gain, Primoz Roglic, Mikel Landa, Pello Bilbao eta Ion Izagirre bezalako beteranoak ere lehiatuko dira.

## Asteburu honetan itzuliko da futbol zaletuaren Kopa

**E.B.** Joan den asteburuan atsedena hartu ondoren, asteburu honetan itzuliko da lehia futbol zaletuaren Kopa txapelketara, gainera oso partidua garrantzitsuekin. Izan ere, sailkapeneko lehen lau postuetan dauden taldeek elkarren aurka jokatu dute. Batetik, Bar Maren liderra Bergara Pneumatikoak laugarren sailkatuaren aurka arituko da; eta bestetik, Kalaka Buenos Aires bigarrena eta Xania Taberna hirugarrena elkarren aurka lehiatuko dira. Beste partidua Limpietas Rueda - Malape Taberna eta Garajes Garcia - Adahi Etxegi izango dira. Baserri azken sailkatuak, oster, atsedena hartuko du.

### SAILKAPENA

1. Bar Maren, 6 puntu
2. Kalaka Buenos Aires, 4 puntu
3. Xania Taberna, 4 puntu
4. Bergara Pneumatikoak, 4 puntu
5. Malape Taberna, 4 puntu
6. Limpietas Rueda, 2 puntu
7. Garajes Garcia, 0 puntu
8. Adahi Etxegi, 0 puntu
9. Baserri, 0 puntu

## Eibarko Pala Txapelketaren 5. jardunaldia jokatu da domekan

**E.B.** Thermopylae II jaialdiarekin zapatuan borrokak izango badira protagonista Astelena pilotalekuan, domekan ohiko jardunera itzuliko da Katedrala eta pilota partidak jasoko ditu, Eibarko Pala Txapelketako neurketak hain zuzen ere.

Lehiaketaren 5. jardunaldia jokatu da lau partidarekin, hiru goizean eta bakararra arratsaldean. Goizeko saioa 9:15ean hasiko

da, eta bertan hainbat neurketa izango dira: hasteko, Egia-Zugadi eta Ferreiro-Urain bikoteak aurrez aurre ariko dira; ondoren, Letu-Gaztelu eta Urkia-Guisasola lehiatuko dira; eta azkenik, Amas-Bartolo eta Unda-Apa bikoteek itxiko dute goizeko jarduna.

Arratsaldean, 16:30ean, jardunaldiko azken neurketa jokatu da: Apraiz-Txiplo eta Izarra-Arrizabalaga.



## Eibarko txoriak ezagutzeko irteera egingo da domekan

**E.B.** Mendi Jardunaldien inguruan antolatu den azken ekintza egingo du Deporrek mendi batzordeak eta, Asier Sarasua biologoarekin batera, Eibar inguruko txoriak ezagutzeko irteera egingo da domekan. Goizeko 09:00etan egingo da irteera Urkizuko iturritik, eta Santa Kurutz ingurura joatea da asmoa, berriz Urkizura jaisteko. "Ibilbide erraza eta pedagogikoa izango da, eta helburua bertoko txori kanta ezagutzea eta bereiztea da", antolatzaileen berbetan. Horrela, saioa oinarritzkoa da eta giro jatorrean egitea espero dute.



## Azken jardunaldiko berdinketarekin, gorengo mailari eutsi dio Eibar A taldeak

**E.B.** Azkoitiko Anaitasuna-Kakute taldearekin azken txandan berdindu ondoren, sailkapenaren 9. postuan amaitu du Gipuzkoako Taldekako Gorengo Mailan jokatzeko duen Eibar A xake taldeak.

Hamar punturekin, Baiona taldearekin berdinduta amaitu dute eibartarrek (Deporrekoek postu bat gorago desberdinketarengatik), eta azpitik geratu dira Zarautz (15 punturekin) eta Anaitasuna-Kakute bera (14,5 punturekin).



Argazkia: PEDRO ELIZONDO

## Sagardui eta Gaminde izan ziren garaile Astelenako finalean

**E.B.** Joan den domekan, martxoak 22, Emakume Master Cup zirkuituko binakako txapelketaren finala jokatu zen Astelena frontoian eta Alize Sagardui eta Enara Gamindek jantzi zuten txapela. Olatz Arrizabalaga eta Arrate Bergara izan zituzten aurrean, orain arteko partida guztiak irabaziak zituen bikotea, eta 22-17 gailendu zitzaion, etorkizuna euren eskuetan dagoela erakutsita.

Sagarduik, 14 urterekin, historia egin du, maila horretako finalean heldutasuna erakutsiz. 19 urte dituen Gamindek, bere aldetik, egungo pilotaririk ahaltsuena dela erakutsi zuen, bere kolekziora beste txapel bat gehituz.



## Giro atseguinean egin zuten Emakumeen Ibilaldia 70 lagunek

**E.B.** Hilaren 15ean, Emakumeen Ibilaldia egin zen Martxoaren 8ko ekintzen barruan, eta demaseko erantzun ona izan zuen antolatzaileek esan digutenez. 70 emakumek hartu zuten parte ibilaldian eta giro atseguinean egin zioten aurre zoru bustiari eta hotzari, Depor tabernan "pintxo eder batekin" amaitzeko, esan digutenez.



## Thermopylae K1 eta MMA ikuskizuna egingo da bihar Astelena frontoian

**E.B.** Iazko arrakastaren ostean, Thermopylae arte martzial mistoen ikuskizunaren bigarren edizioa jokatuko da bihar, Astelena frontoian, 16:00etatik aurrera. K1 eta MMA modalitatetako 11 borroka egingo dira guztira, Eibarko Ronin eta Sakuragimnasioetako borrokalariekin tartean. Horrela, Ronineko Iñaki Ordoño eta Sakurako Samuel Gomes arituko dira lehia nagusietan, Asier Arceren eta Jokin Martinen aurka, K1ean eta MMA, hurrenez hurren. Maialen Ladok Itziar Zengotitabengoa izango du arerio K1ean eta Amina Gourmatek Sofia Gaona.

Sebastian Hernandez Sakura Teameko arduradun eta Thermopylae ikuskizunaren bultzatzailearen iritziz, "Eibarren oso borrokalaria onak daude, baina orain arte ia ez dute hori erakusteko aukerarik izan".

Jaialdirako motorrak berotzeko, bihar 11:00etan, borrokalarien pisaketa-saioa egingo da Arkupe taternaren arkupeetan.

Eguaztenean egin zuten aurkezpene Udaleko ordezkariak, antolatzaileak eta aipatutako hiru bo-

rrokalariek. "Ikuskizuna emateko gogoz gaude", aipatu zuten hirurek. "Gainera, oso lehia erakargarriak prestatu dira, Termopiletakoen mailakoak", esan zuen Ian Exposito Ronin klubeko arduradunak.

Modalitate bien arteko ezberdintasunez galdetuta, zera argitu zuten: "K1ean boxeoa eta ostikoak uztartzen dira, eta belauna ere erabili daiteke. MMA, bestalde, lurreko borroka eta kolpeak uztartzen dira, eta ikusgarriagoa da".

Sarrerak Sakura eta Jürna gimnasioetan, Beleko tabernan, eta I Am eta Abdel ile-apaindegietan daude eskuragai gaur arte, eta bihar pisaketa-saioan eta Astelena frontoian. Harmailetako sarrerek 25 euro balio dute eta pistako jarlekuetakoek 35 euro. "Hainbat ikuskizunetan egon ondoren, esan dezaket inguruan ez dagoela gurea bezalakorik", Hernandez ustez. Gainera, Astelena frontoian egitearen balioa azpimarratu zuen Expositok: "Bistarako eta entzumenerako gozamenak da, eta borrokak oktogonoan ikustea beste maila bateko esperientzia da".

## ASTEBURUKO AGENDA

### FUTBOLA

#### Emakumezkoen 1. Maila

Deportivo - EIBAR (bihar, 18:00)

EIBAR - Tenerife (04/03, 12:00)

#### Gizonezkoen 2. Maila

EIBAR - Las Palmas (etzi, 14:00)

Real Sociedad B - EIBAR (04/02, 20:00)

#### Emakumezkoen 2. Maila RFEF

EIBAR B - Athletic B (bihar, 12:00)

#### Gizonezkoen 2. Maila RFEF

Amorebieta - EIBAR B (etzi, 12:00)

#### Gizonezkoen 3. Maila RFEF

EIBAR C - Touring (bihar, 17:30)

#### Erregionaleko Ohorezko Maila (gi)

Orioko - URKI (bihar, 17:00)

#### Erregionaleko Gorengo Maila (gi)

EIBARTARRAK - Aretxabaleta B (bihar, 15:30)

#### Jubenilen Liga Nazionalea (gi)

Santutxu - EIBAR B (etzi, 11:00)

#### Jubenilen Euskal Liga (gi)

Lagun Onak - URKI (bihar, 17:30)

### FUTBOL-ZALETUA

- Kalaka Bs. As. - Xania (bihar, 09:00)
- Limpiezas Rueda - Malape (bihar, 10:30)
- Garajes Garcia - Adahi Etxegi (etzi, 09:00)
- Bergara Pn. - Bar Marem (etzi, 10:30)
- Atsedena: Baserri

### ESKUBALOA

#### Zilarrezko Maila (em)

E ESKUBALOA - E. Eskolabarri (bihar, 19:15)

#### 1. Maila Nazionalea (gi)

Pulpo - EIBAR ESKUBALOA (bihar, 18:30)

#### Euskadiko Senior Txapelketa (gi)

Sopela - E. ESKUBALOA B (bihar, 20:00)

### WATERPOLOA

#### Euskal Herria Liga (em)

URBAT - Lauro B (gaur, 21:15)

#### Euskal Herria Liga (gi)

Larraina - URBAT B (etzi, 15:15)

Kirol albiste gehiagore webgunean





## Urteko Batzar Nagusia egin du ...eta kitto! Euskara Elkarteak

Martitzenean aurkeztu zituen ...eta kitto! Euskara Elkarteak iazko balorazioa eta 2026rako proposamena eta aurrekontua elkar-tearen egoitzan egindako Urteko Batzarrean. 2025ean errelebo generazionalak eta eskualdea lantzeko proiektu komunikatiboak pisu handia izan zuten elkarteak. Aurtengoari begira, lantaldearen egonkortasuna lantzen eta markarikuspegiaren eta babes sozialaren ildotik jarraituko du elkarteak, sustapen arloa indartu, hausnarketa egin eta programak gaurkotu eta sortuko dira. Hainbat eragilerek

aliantza estrategikoak egonkortu nahi ditu elkarteak eta ikuspegi berritzailea lantzen jarraituko du. Bazkide-kuotei dagokienez ez da aldaketarik: 5 euro 16 urtetik behe-rakoek; 20 euro langabetu, ikasle eta jubilatuek; eta 50 euro lanean ari direnek. Zuzendaritza berria honakoek osatzen dute: Ekaitz Juaristi presidentea; Gorka Guenaga presidenteordea; Maider Aranberri idazkaria eta diruzaina; eta bokalak Ana Aizpurua, Ainara Lavado, Ane Lizarralde, Jon Mardaras, Anartz Mitxelena, Jon Mikel Mugika eta Iraia Muñoz.



## Kalean da martxoko Txikitto! hilabetekaria

Oporretara joan aurretik aste honetan jaso dute Lehen Hezkuntzako ikasleek martxoari dagokion Txikitto! hilabetekaria. Korrikari buruz hitz egin digute Arrateko Andra Mari ikastetxeko ikasleek eta La Salleko Eneko ikaslea Fran aitxitzarekin elkartu dugu elkarriketa dibertigarrian. Horrez gain, ez dira falta ohiko txiste, denborapasa, ipuin eta liburu gomendioak. Apirilaren ez da alerik izango eta hurrengoa maiatza amaieran argitaratuko da.

## Barixakuak Jolasian ekimenak oporrak hartuko ditu apirilera arte

Euskarazko aisialdia eskaintzen duen ...eta kitto!-ren programak oporrak hartu ditu apirilera arte. Aste Santuko oporren ostean berriro itzuliko da herriko auzoetara. Apirilaren 17an Txaltxa Zelain egingo dira jolasak 2 eta 8 urte bitarteko umeentzat; apirilaren 24an Torrekuako parkean eta maiatzaren 8an, ikasurteko azkeneko saioa, Urkizuko parkean egingo da.



# EGIN GUREKIN KORRIKA 3159 km

21:55ean,  
Toribio Etxeberrian (Igmar parean)

**ONGIETORRI PROGRAMAKO KIDEEK**  
**ERAMANGO DUTE LEKUKOA**

 **eta kitto!**  
euskara elkartea

## zarelakopara

Zure pausoak indartzen  
du euskararen bidea.  
Batu zaitez eta egin dezagun Eibar  
euskaldunagoa.

**EGIN ZAITEZ BAZKIDE**

### BAZKIDETZA KUOTAK (URTEKO)

- Umeak (16 urtetik behera): urtean 5€
- Ikasle, langabetu eta jubilatuek: urtean 20€
- Langileak: urtean 50€

\*Errenta aitortpenean %30 itzuliko zaizu

Info+: 943200918 / [elkartea@etakitto.eus](mailto:elkartea@etakitto.eus)

 **eta kitto!**  
euskara elkartea



## Eibar eta Soraluzeko musika ikasleekin joko du Bandak

**S.H.** Domekan (martxoak 29) kontzertua emango du Eibarko Musika Bandak, 12:30ean Coliseo antzokian. Aste Santuko oporren aurretik egingo duten emanaldia, gainera, berezia izango da, Bandako kideak Eibarko eta Soraluzeko Musika Eskoletako ikasleekin batera arituko baitira. Andoni Vazquez Eibarko Musika Bandako zuzendariak esan digunez, “20 ikaslek gurekin batera joko dute, eta beste 23 ikasle gurekin abesten arituko dira”. Bere iritziz, “oso kontzertu polita izango da. Pelikuletako musika eskainiko dugu, baita musika euskalduna ere”.



## La Red Teatrok itxiko ditu Antzerki Jardunaldiak

**S.H.** Gaur (barixakua, martxoak 27) amaituko dira XLIX. Eibarko Antzerki Jardunaldiak, La Red Teatro talde eibartarraren *El encargo* lanarekin. Maite Lorenzo, Ricardo Izagirre eta Juanma Cano protagonista dituen istorioa argitaletxe ezagun bateko bulegoetan garatzen da, arrakasta lortu nahi duten bi idazleri elkarriketa pertsonalak egingo zaizkien egunean. Coliseo antzokian antzeztuko dute, 19:00etan, eta sarrerak 5 euro balio du.



## Xabier Badiolak bere bigarren diskoa kaleratu du

**S.H.** Xabier Badiola kantugile eta gitarrista eibartarra bere bigarren diskoa kaleratu du: *Leiho Ondoan Xori Bat*. Diskoa 2024ko abendutik 2025eko irailera bitartean grabatu da Abadetxe estudioan, eta Balio Dute kolektiboak kaleratu berri du, martxoaren 18an. Euskarazko hamar kantek osatzen dute lana. Ahotsa eta gitarra Xabier Badiolak jarri ditu, eta Eñaut Zubizarretak txeloa jotzen du. Koruak Jone Laspiurrenak dira, eta grabaketa zein nahasketak Xabier Agirrek egin ditu. Ekoizpena, berriz, Badiola eta Agirreren eskutik etorri da, eta mastering lana Daniel del Río - Sonology Mastering-ek egin du. Diskoaren arte eta maketazioa Mateo Benguria eta Badiolak landu dute, eta musika eta hitzak guztiz Xabier Badiolarenak dira. Lan berria dagoeneko entzuteko prest dago sarean, eta entzuleek bere Bandcamp orrian gozatu dezakete.



## Zapatu Beltza-ren erritmora ospatuko da 5. urteurren jaia

**S.H.** Bost urte igaro dira Bittor Sarasketa kalean Zai-zoi taberna zabaldu zutenetik eta, hori ospatzeko, Zapatu Beltza talde eibartarrak kontzertua emango du bihar (zapatua), 19:00etan. Antolatzaileek esan dutenez, kontzertua amaitu eta garaiz ailegatuko dira Korrikara.



## Eibarko historia eta ondare industrialak ezagutzeko bisita gidatuak antolatu dituzte

**S.H.** Aste Santuko jai egunak herrian bertan turismoa egiteko aprobetxatu nahi dutenek aukera paregabea izango dute: Udalak, Debegesarekin lankidetzan, Eibarko historia eta industria oinarri dituzten doako bisita gidatuak eskainiko ditu eta. Nerea Alustiza historialari eibartarrak egingo ditu bisitak, herri barruan eta, ondare industrialaren bidez, gure herriaren historia eta berezitasunak azalduko ditu, besteak beste. Horrekin batera, Eibarrek Gerra Zibilean izan zuen aldaketa drastikoa, eta ondoren nola berpiztu zen kontatuko die bisitariei. Ibilbidean zehar erreferentzia egingo zaie herriko enpresa enblematiko batzuei, hala nola El Casco, Lazpiur, Aurrera edo BH.

Bisiten iraupena ordu eta erdi ingurukoa izango da, eta San Andres parrokiaren plazatzon hasi eta Estaziño kalean amaituko dira. Apirilaren 2an, 3an eta 4an 18:00ean hasiko dira; eta apirilaren 6an, berriz, goizez izango da, 11:30ean. Bisita guztiak gaztelaniaz egingo dira, apirilaren 3koa salbu. Parte-hartzea doakoa da, eta interesa dutenek 10 minutu lehenago egon beharko dute abiapuntuan, San Andres elizaren ate nagusian.

Jon Iraola alkateak nabarmendu duenez, “bisita hauek aukera ezin hobea dira Eibar beste begi batzuekin ikusteko, eta kanpotarrei zein bertakoei gure historiaren, ondarearen eta tradizio industrialaren balioa eta garrantzia erakusteko. Eibar nortasun handiko hiria da, ahalegina, berrikuntza eta erronkak gainditzeko gaitasuna ezaugarri dituen, eta ibilbide hauek aukera ematen digute hori guztia hobeto ezagutzeko”. Orain dela urte batzuk hasi ziren horrelako bisita gidatuak eskaintzen, eta herritarren erantzuna oso ona izaten ari da hasieratik. Aste Santuan ez ezik, udako oporretan ere antolatzen dituzte.



## Eguen Zuri lehiaketako argazki erakusketa Topalekun

**S.H.** Atzo banatu zituzten Arrate Kultur Elkartek antolatutako XXVIII. Eguen Zuri argazki lehiaketako sariak, erakusketaren inaugurazio ekitaldian. Aurten lehen saria Silbia Hernandez Arrazolak eskuratu du, *Gure Zirkua* izenburuko lanarekin. Bigarren saria Pedro Arriola Arrizabalagarentzat izan da, *Arratoiak* argazkiarengatik, eta hirugarren saria David Piqueras Apariciok eskuratu du, *Carnavalen Venecia 3* izenburuko lanarekin. Apirilaren 12ra arte egongo da ikusgai erakusketa, Topalekun.

## Eibarko Artisten erakusketa

**S.H.** Gaur (barixakua, martxoak 27) zabalduko dute Eibarko Artisten Elkartearen erakusketa kolektiboa, 19:00etan Portalean. Erakusketa honetan era guztietako lanak bildu dituzte. Erakusketa areto berean Institutuko Batxiler-go Artistikoko ikasleen artelanak ikusi daitezke. Apirilaren 26ra arte bisitatu ahalko dira biak, ohiko ordutegian.



## Sanjuanetako prestatzeko bilera

**S.H.** Sanjuanetako egitaraua prestatzeko hirugarren bilera egingo du Jaixak Herrixak Herrixandakok gaur (barixakua, marxoak 27), 18:00etan Arrate Kultur Elkartean. Bilerak irekia izango da eta, beraz, ateak irekita egongo dira jaien antolakuntzan ekarpenak egin nahi dituzten guztientzat.

ERRAZA

|   |  |   |   |   |   |   |   |   |
|---|--|---|---|---|---|---|---|---|
|   |  | 6 |   |   | 2 | 3 |   | 4 |
| 9 |  | 4 | 7 | 5 |   |   | 8 | 2 |
|   |  | 8 |   |   | 6 |   |   | 5 |
|   |  | 3 |   |   |   |   | 4 |   |
| 2 |  |   | 4 |   |   | 8 | 3 |   |
| 4 |  | 7 | 5 |   |   |   |   |   |
|   |  |   | 6 |   |   |   |   | 8 |
| 7 |  |   |   | 2 |   | 4 | 5 | 3 |
|   |  |   | 3 | 7 |   |   | 6 | 9 |

SUDOKUA

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 6 | 9 | 1 | 5 | 7 | 2 | 3 | 8 | 4 | 5 |
| 3 | 5 | 4 | 2 | 1 | 6 | 9 | 7 | 8 | 2 |
| 8 | 7 | 2 | 4 | 6 | 9 | 5 | 3 | 1 | 4 |
| 9 | 2 | 6 | 1 | 3 | 5 | 7 | 4 | 8 | 2 |
| 7 | 3 | 8 | 6 | 9 | 5 | 1 | 4 | 2 | 5 |
| 1 | 4 | 5 | 7 | 2 | 3 | 8 | 6 | 9 | 4 |
| 5 | 1 | 7 | 4 | 6 | 9 | 8 | 3 | 2 | 7 |
| 2 | 4 | 7 | 5 | 3 | 6 | 8 | 9 | 1 | 5 |
| 8 | 2 | 3 | 4 | 1 | 7 | 5 | 9 | 6 | 8 |
| 4 | 6 | 9 | 1 | 2 | 8 | 3 | 7 | 5 | 4 |

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 4 | 2 | 3 | 2 | 8 | 1 | 7 | 5 | 6 | 9 |
| 1 | 8 | 9 | 5 | 2 | 6 | 3 | 4 | 7 | 1 |
| 6 | 7 | 3 | 5 | 6 | 3 | 9 | 4 | 2 | 8 |
| 7 | 9 | 4 | 6 | 3 | 2 | 8 | 1 | 5 | 7 |
| 3 | 6 | 5 | 4 | 2 | 1 | 7 | 9 | 8 | 3 |
| 1 | 6 | 1 | 8 | 3 | 7 | 2 | 4 | 5 | 6 |
| 5 | 8 | 7 | 9 | 6 | 1 | 4 | 3 | 2 | 5 |
| 8 | 3 | 1 | 7 | 9 | 6 | 1 | 7 | 4 | 2 |
| 2 | 5 | 8 | 6 | 9 | 3 | 2 | 4 | 1 | 7 |
| 9 | 4 | 2 | 1 | 7 | 8 | 5 | 6 | 3 | 9 |


ZAILA

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
|   | 7 |   |   | 9 |   |   | 5 | 2 |
|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
| 3 |   | 9 |   | 8 |   |   |   |   |
|   |   |   | 7 |   | 9 | 4 |   |   |
|   | 5 |   |   | 3 |   | 9 |   |   |
|   |   | 8 | 6 | 5 |   |   | 3 | 7 |
|   | 8 | 2 |   |   |   | 5 | 7 |   |
|   | 4 |   |   | 2 |   | 6 |   | 8 |
| 6 |   |   | 1 |   |   | 3 |   | 4 |

LETRA-ZOPA

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| X | M | L | L | K | A | N | A | D | A |
| J | G | N | I | A | I | D | N | I | D |
| A | I | O | Z | P | R | B | I | S | K |
| P | N | R | F | O | M | A | T | S | K |
| O | E | B | P | L | T | I | A | U | A |
| N | A | E | A | O | W | K | L | R | G |
| I | O | G | N | N | B | R | I | E | L |
| A | R | I | A | I | G | U | A | P | D |
| B | J | A | M | A | K | T | R | C | S |
| N | P | S | A | G | K | Z | I | J | I |

Italia    Japonia  
Kanada    Norbegia  
Peru    Panama  
Ginea    India  
Polonia    Turkia



# Martxoak 27 - Apirilak 9

## BARIXAKUA 27

### BILERA IREKIA

**18:00** Sanjuanetako egitaraua prestatzeko bilera, Jaixak Herrixak Herrixandakok antolatuta. Arrate Kultur Elkarte.

### ANTZERKI JARDUNALDIAK

**19:00** "El encargo" (La Red Teatro, Eibar). 5 euro Coliseo.

## ZAPATUA 28

### KORRIKA EGUNA

**10:00** Tailerrak Ipurua-ko Merkatu Plazan; **12:30** Ipuruako Korrika Txikia, Argatxan. **11:00** Urkiko Korrika, Kurutzetakuatik abiatuta; **11:30** Herri kirolak, eskolako patioan. **12:00** Korrika Gunea irekiko dute Untzagan, txosnarekin; ondoren, poteo girotua. **14:30** Talde argazkia eta, jarraian, herri bazkaria. **18:15** KAXAK antolatutako zunbatoia; **19:00** Matraka elektrotxarangen emanaldia; **21:00** Denok Korrikara ekimena; **22:30** Erromeria, Iratzar taldearekin.

### AZOKA SOLIDARIOA

**11:00/15:00** Ibarratik Misisio Taldea GKE-ari laguntzeko azoka solidarioa. Indiako Karitateko Karmeldar Vedruneko lau moja bertan izango dira. Helmet House.



## ZAPATUKO IPUINA

**12:00** "Lili eta herensugea", 6 urtetik gorako umeentzako ipuin kontaketa saioa, Maider Alcelayren eskutik. Doan, aurretik izena emanda. Portalea (areto nagusia).

### THERMOPYLAE II

**16:00** MMA eta K1 arte martzialen Thermopylae ekimena. Astelena frontoia.

### TALDE-TAILERRA

**17:00** Zaintzaile eta etxeko langileen eskubideak eta betebeharrak. Jarduera irekia eta doakoa. Andretxea.

### MUSIKA

**19:00** Zapatu Beltza taldearen kontzertua, 5. urteurren ospatzeko. Gero denak Korrikara. Zai-zoi taberna.

## DOMEKA 29

### EIBARKO MENDI JARDUNALDIAK

**09:00** Txoriak ezagutu eta ikusteko irteera, euskaraz, Asier Sarasua Aranberriren eskutik. Doan. Izen-emaitea: [www.deporeibar.com/mendia](http://www.deporeibar.com/mendia). Urkizuko iturritik abiatuta.

### BISITA GIDATUA

**11:00/14:00** Gerrako Fronteko Bisita Gidatua, gaztelaniaz. Gerra Zibileko Interpretazio Zentroa 10:00etatik 11:00etara zabalduko dute. Arrateko Interpretazio Zentrotik abiatuta.

### MUSIKA

**12:30** Eibarko Musika Bandaren kontzertua. Coliseo.

### TAILERRA

**15:30/19:00** "Umbrel edo Start9 erabiltzen duzu?"

Eman hurrengo pausoa" tailer praktikoa. Izen-emaiteak: 614131174 (WhatsApp). Ipuruako Merkatu Plaza.

## MARTITZENA 31

### HERRITU

**18:30/19:30** Gure Eskuren Herritu ekimenarekin bat egiteko mahaia. Eibarko Klub Deportiboa (1. solairuko lokalean).

## EGUAZTENA 1

### AGURTZEN

**18:00/20:00** Aurretiazko borondatei buruzko informazio-zerbitzua, Ikasten-en eskutik. Untzaga gizarte etxea (Arrate aretoa).

## EGUENA 2

### BISITA GIDATUA

**18:00/19:30** Bisita gidatua, doan. Gaztelaniaz. Parte hartzeko 10 minutu lehenago bertaratu. Hasiera: San Andres parroikia.

## BARIXAKUA 3

### BISITA GIDATUA

**18:00/19:30** Bisita gidatua, doan. Euskaraz. Parte hartzeko 10 minutu lehenago bertaratu. Hasiera: San Andres parroikia.

## ZAPATUA 4

### BISITA GIDATUA

**18:00/19:30** Bisita gidatua, doan. Gaztelaniaz. Parte hartzeko 10 minutu lehenago bertaratu. Hasiera: San Andres parroikia.

## ASTELEHENA 6

### BISITA GIDATUA

**11:30/13:00** Bisita gidatua, doan. Gaztelaniaz. Parte hartzeko 10 minutu lehenago bertaratu. Hasiera: San Andres parroikia.

## MARTITZENA 7

### HERRITU

**18:30/19:30** Gure Eskuren Herritu ekimenarekin bat egiteko mahaia. Eibarko Klub Deportiboa (1. solairuko lokalean).

## EGUENA 9

### ODOL-EMATEA

**16:50/20:50** Odola ematera joateko saioa, odol-emaileentzat. Untzaga jubilatuta etxea.

## RAKUSKETAK

### Martxoaren 31ra arte

"Greba orokor feminista-rantz", Martxoak 8ko lantaldearen eskutik. Andretxea.

### Apirilaren 12ra arte

XXVIII. Eguen Zuri argazki lehiaketako lanak. Topaleku.

### Apirilaren 26ra arte

Institutuko ikasleen erakusketa. Portalea.

### Apirilaren 28ra arte

Eibarko Artisten Elkartearen erakusketa kolektiboa. Portalea.

### Maiatzaren 17ra arte

"El Trust Eibarres S.L." erakusketa, enpresaren mendeurrena ospatzeko. Armagintzaren Museoa.

ZINEA COLISEO



**“Valor sentimental”**  
DRAMA  
2025/Norvegia/135’  
Zuzendaria: Joachim Trier  
Aktoreak: Renate Reinsve, Elle Fanning, Stellan Skarsgård  
Familia. Aitatasuna.

**1 ARETOA**  
• 28an : 19:30, 22:30  
• 29an : 20:00  
• 30ean : 19:30



**“Amarga Navidad”**  
DRAMA  
2026/Espainia/111’  
Zuzendaria: Pedro Almodóvar  
Aktoreak: Bárbara Lennie, Leonardo Sbaraglia, Aitana Sánchez-Gijón  
Adiskidetasuna. Familia

**1 ARETOA**  
• 28an : 16:30  
• 29an : 17:00  
**ANTZOKIA**  
• 28an : 19:45, 22:30  
• 29an : 20:00  
• 30ean : 19:30



**“Águilas de El Cairo”**  
DRAMA. THRILLERRA  
2025/Suedia/127’  
Zuzendaria: Tarik Saleh  
Aktoreak: Fares Fares, Lyna Khoudri, Cherien Dabis  
Zinema zinemaren barruan.  
Politika

**2 ARETOA**  
• 28an : 16:30, 19:30, 22:30  
• 29an : 17:00, 20:00  
• 30ean : 19:30



**“Tafiti eta bere lagunak”**  
ANIMAZIOA. KOMEDIA.  
ABENTURAK  
2025/Alemania/81’  
Zuzendariak: Nina Wels, Timo Berg  
Animaliak. Familia-zinema

**ANTZOKIA**  
• 28an : 17:00  
• 29an : 17:00

**FUNEUSKADI**  
Grupo Asaltza

**TANATORIO EIBAR**

**FUNERARIA MUGICA**  
Funeruskadi

**TANATORIO CREMATÓRIO ELGOIBAR**

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951  
www.funeuskadi.com

|                                      |                                                                                 |
|--------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------|
| Eibar:<br>Otaola, 27                 | Elgoibar:<br>Xixilion, s/n. SIGMA Industrialdea<br>(Olasoko hilerriaren ondoan) |
| Eibarko bulegoa:<br>Bidebarrieta, 20 | Ermuako bulegoa:<br>Marqués de Valdespina, 16                                   |

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao  
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao



**Irene Salgado Azconizaga**

2026/03/20

**“Gure bihotzetan betirako. Ez zaitugu inoiz ahaztuko”**

- ZURE FAMILIA -



943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak **MANEX!** Martxoaren 22an 10 urte egin zendua-zen eta!! Muxu potolo bat famelixan eta, batez be, Maialen, Kora eta Nikon partez!



Zorionak **MARTIN-TXO!** 9 urte bete zenduaz 23an eta. Musu haundi bat famelixa danan partez! Izugarri maite zaittugu!



Zorionak **NORA!** 17xan bi urtetxo! Segi beti bezain alai eta sorgintxu. Asko maite zaittugu. Patxo erraldoia famelixaren partez!



Zorionak **VEGA!** Apirilaren 2an 6 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat etxeko guztien partez!



Zorionak **AITATXO!** Martxoaren 22xan ospatu genduaz 2 urte bete dittuzu. Txikixa naiz, baina munduko aitarik onena zarala esan nahi detsut. Xuban.



Zorionak **VEGA!** Hillaren 17xan 2 urte bete dittuzu. Asko maite zaittugu, printzesa. Patxo potolo bat, batez be Mateoren partez.



Zorionak **OIER!** Hilaren 18xan 4 urte bete dozuz-eta! Musu eta besarkada haundi bat famelixaren partez! Asko maite zaittugu!



Zorionak **ION!** Apirilaren 2xan 6 urte beteko dozuz! Maite zaittugu. Famelixaren partez.



Zorionak **JULEN!** etzi (martxoak 29) 2 urte beteko dozuz-eta. Laztan haundi bat famelixaren eta, batez be, Martinaren partez.



Zorionak **HEGOI!** Bihar 9 urte beteko dozuz-eta, txapel-dun. Korrikarekin batera ospatuko dugu zure eguna. Muxu erraldoi bat famelixa eta lagun guztien partez.



Zorionak **MAYSAM MEDBOU!** Domekan 7 urte beteko dozuz-eta. Besarkada haundixa famelixaren partez.



Zorionak **IMANO!** Astelehenian urtiak beteko dozuz-eta. Ondo ondo ospatu! Laztan haundi bat lagun guztien partez.



**Delio Olabe Arrizabalaga**

2026/03/25

MILA ESKER une latz hauetan gurekin egon zareten guztioi.

- FAMELIXAKUAK -




**Mª Luisa Usatorre Lizarralde**

2026/03/25

**“Beti egongo zara gure gogoan. Maite zaittugu”**

Bere aldeko meza domekan, hilak 29, ospatuko da, Eibarko San Pio X elizan, 12:00etan.

- ETXEKOAK -



# Iragarki laburrak



943 20 67 76  
aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

|                        |
|------------------------|
| <b>1. ETXEBIZITZA</b>  |
| 1.1. Salgai            |
| 1.2. Errentan          |
| 1.3. Konpartitzeko     |
| 1.4. Etxe trukaketa    |
| <b>2. MOTORRA</b>      |
| 2.1. Salgai            |
| <b>3. LOKALAK</b>      |
| 3.1. Salgai            |
| 3.2. Errentan          |
| 3.3. Konpartitzeko     |
| <b>4. LANA</b>         |
| 4.1. Lan bila          |
| 4.2. Langile bila      |
| <b>5. IRAKASKUNTZA</b> |
| 5.1. Eskaerak          |
| 5.2. Eskaintzak        |
| <b>6. DENETARIK</b>    |
| 6.1. Salgai            |
| 6.2. Eman              |
| 6.3. Galdut/Aurkitu    |
| 6.4. Bestelakoak       |

|                                                                                 |
|---------------------------------------------------------------------------------|
| <b>1. ETXEBIZITZA</b>                                                           |
| 1.2. Errentan                                                                   |
| • Emakumeak pisu edo logela bat alokatuko luke. 742099074.                      |
| <b>3. LOKALAK</b>                                                               |
| 3.1. Salgai                                                                     |
| • Garajea salgai Urkizu Pasealekuko 9 zenbakian. 25 m <sup>2</sup> . 659584892. |
| • Trasteroa salgai. 5 m <sup>2</sup> . Arratebiden. 666769414.                  |
| 3.2. Errentan                                                                   |
| • Egiguren-tarrenen garaje itxia alokagai. 646964712.                           |

|                                                                                                                                                               |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>3.3. Konpartitzeko</b>                                                                                                                                     |
| • Laster Eibarren zabalduko den tailer/coworking bat parte-katzeko kide bila dabil artista plastikoa. Mota guztietako profilak ongi etorriak dira. 658872397. |

|                                                                                                                                                       |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>4. LANA</b>                                                                                                                                        |
| 4.1. Lan bila                                                                                                                                         |
| • Emakumea eskaintzen da umeak edota nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. 662625534.                                                          |
| • Mutil gaztea eskaintzen da tabernari modulan lan egiteko eta baita nagusien zainketa eta garbiketa lanak egiteko ere. 635944602.                    |
| • Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, orduka edota interna bezala, baita garbiketa lanetarako ere. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 667060292. |
| • Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, orduka edota interna bezala, baita asteburuetan ere. 643860541.                                          |
| • Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 641756213.                                                              |
| • Emakumea eskaintzen da ostalaritzan, garbiketa lanetan edota nagusiak zaintzen lan egiteko. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 641322473.             |
| • Emakumea eskaintzen da nagusiak edota umeak zaintzeko. Baita garbiketa lanetarako ere. 642450647.                                                   |
| • Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, interna bezala, baita egunez edota gauzez ere. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 632292662.               |
| • Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko, orduka. Esperientziarekin eta ziurtagiri soziosanitarioarekin. 602800266.                      |

|                                                                                                                                           |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| • Emakumea eskaintzen da nagusiak edota umeak zaintzeko, garbiketa lanetarako... Tituluarrekin. 633101852.                                |
| • Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak zaindu edota garbiketa lanetarako. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 632624579.                   |
| • Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak zaindu edota garbiketa lanetarako. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 605597134.                   |
| • Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, interna bezala edota orduka. Baita garbiketa lanetarako ere. 614943897.                      |
| • Mekanika ingeniaria eskaintzen da edozein motatako lanak burutzeko: Igeltseritza, iturgintza, elektrizitatea, pintura... 641838914.     |
| • Emakumea eskaintzen da interna bezala lan egiteko, nagusiak zaintzeko edota garbiketa lanetarako. Edozein ordu eta egunetan. 643860541. |
| • Gizona eskaintzen da tindategiko laguntzaile gisa, ostalaritzako laguntzaile gisa edota garbiketa lanak egiteko. 602339328.             |
| • Emakumea eskaintzen da interna bezala lan egiteko edo orduka, ume zein nagusiak zaintzeko, edota garbiketa lanetarako. 613314603.       |
| • Neska eskaintzen da nagusiak eta umeak zaindu, garbiketa lanetarako. 632119320.                                                         |
| • Emakumea eskaintzen da nagusiak eta umeak zaindu, garbiketa lanetarako... 643342975.                                                    |
| • Emakumea eskaintzen da nagusiak eta umeak zaindu, garbiketa lanetarako... 632642320.                                                    |
| • Emakumea eskaintzen da garbiketa, supermerkatuko hornitzaile, sukalde laguntzaile edo margoketa lanak egiteko. 742099074.               |

|                                                                                                                                    |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| • Tituludun erizaina eskaintzen da pazienteak zaintzeko, mugikortasun arazoak izan edo ez. Baita umeak zaintzeko ere. 641834341.   |
| <b>4.2. Langile bila</b>                                                                                                           |
| • Estetizista eta fisioterapeuta behar dira Eibarko ileapaindegri batean. Lan giro ona. 943208125.                                 |
| • Sukaldaria behar da Debabarreneko jatetxe baterako. Esperientziarekin eta kotxearekin. Curriculuma bidali whatsapppe: 670672515. |

|                                                                                                                                                                                               |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>5. IRAKASKUNTZA</b>                                                                                                                                                                        |
| 5.2. Eskaintzak                                                                                                                                                                               |
| • DBH eta Batxilergoko klase partikularrik ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.                                                                                                    |
| • Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrik ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe. |
| • DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.                      |

|                                                                   |
|-------------------------------------------------------------------|
| <b>6. DENETARIK</b>                                               |
| 6.2. Eman                                                         |
| • Ohe artikulatua salgai prezio onean. 618022434                  |
| • Zortzi hilabeteko 'huskey siberiarra' oparitzen da. 613 543774. |

# GREMIOEN GIDA

## ANTENAK

Ego Gain, 2 - Bac  
Tfnoa: 943 12 73 50  
www.trinmer.com



**TELEKOMUNIKAZIOAN  
PROFESIONALAK**

## ELEKTRIZITATEA

**THELECEER**  
TELEKOMUNIKAZIOAK  
ELEKTRIZITATEA  
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK  
24 orduko  
urgentziak  
610 532 922 www.theleecer.com



## KRISTALAK

**ACHA Kristaldegia**  
J.A. GISASOLA, 4 - ac  
**KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK**  
info@cristaleriaacha.com eta faxa:  
943 203 903



## AROTZAK



**aluminiozko eta PVC-ko  
AROTZEGIA**  
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea  
Tfnoa: 943 12 13 67 www.ulmar.net

## IGELTSEROAK

Eraikuntza  
Erreformak  
Igeltseritza  
**irazabal**  
Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...  
aldatzen laguntzen dizugu  
etorkizun hobeaz  
goza dezazun

Azaitain Industrialdea, 3 H Pabilioia  
Tfnoa: 943-120108  
www.irazabal.net



## PINTURAK

**IÑAKI**  
pinturak eta lurrak  
Tel. 647 902 208  
Bideburrieta, 21 - behea



## GARBIKETAK



**Garbihome**

Etxe, atari, bulego, merkataritza lokal  
eta komunitateetarako garbiketak  
zerbitzuak eskaintzen ditugu

☎ 642 456 472  
✉ info@garbihome.com  
🌐 garbihome.com



**BISTA·EDER**

Hortz Klinika · Clínica Dental

IRUDI  
BERRIA,



ZURE  
IRRIBARREAREKIKO  
BETIKO PASIO  
BERBERA